1994ko abenduak 23/ 89. zbk.

Astekaria

# BARREN

elgoi




AITZ BIZKAR
ARDOAK
Etxerainoko banaketa
Ura • Patata • Makailoa • Likoreak
Errosario, 20 • ☎ 74 02 37 • ELGOIBAR

BODEGAS ERRASTI, S.L.
Bodegas Gailur
Banatzailea: Julio Bueno
• "Solar Gailur" ardoak
• "Ardandegi" Ardoak
• "ZUDUGARAI" Getariako txakoliña
• "Cavas HILL"en ordezkaritza
• "ILAGARES" ardo nafarraren ordezkaritza

**ateefrit Hyundal Berria**

# ACCENTATU ZAITEZ

Hiru, lau eta bost ateko bertsioak.
1.445.000 ptatik*.
Gainera Hyundaik 3 urteko garantia
eta 24 orduko asistentzia eskaintzen dizkizu.
Accentatu zaitez.
Zatoz zure kontzesionariora.




BERTSIOEN ARABERAKO EKIPAMENDUAK: Airbag, alboetako babes egilura, aire egokitua, direkzio fagundua, atzeranzko ispilu eleklrikoa, mafetegia eta depositoa barrutik zabaltzeko aukera, antena elektrikoa, eserleku eta gerriko erregulagarriak, ixte zentrafizatua, leiho igogailu elektrikoak, atzeko burupausagailuak, irratikaset estereoa.
1300 ela 15000 cc bitarteko MOTORIZAZ1OAK, 82 eta 90 z.ko potentzfarekin.
Injekzio puntuanizdun 12 balbulatako motorrak.

**°J51HYUITID1:11**

**BANATZAILE OFIZIALAK:** GIPUZKOA (ELGOIBAR): MENDARO AUTOAK, S.A. K/ Olaso, 25. 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa). Tel 74 32 00. GIPUZKOA (MENDARO): MENDARO AUTOAK, S.A. Errep. Nazionala 634, KM, 52. 20850 MENDARO (Gipuzkoa). Tel 75 50 72. GIPUZKOA (DONOSTIA): MENDARO AUTOAK, S.A. Zurriola Etorbidea, 16 Behea. 20002 DONOSTIA (Gipuzkoa). Tel. 28 33 33.

3 Urteko Garantia
100 000 km artekaa.
1Piezak eta eskulanal
Hyuncial

• Penmitsula ela Balearetarako proposatutako prezioak, BEZa, garraiaa eta matnkulazio zergak harne.

**elgoiBARREN**
Nafarroa enparantza 2
s. 74 41 T 2
ARGITARATZAILEA:
Eigoibarko IzarTa.
IAGUNTZAILEA:
Elgoibarko Udala.
ZUZENDARIA:
Alberto Agirreazaldegi.
HIZKUNTZA ARDURADUNA:
Anjel Ugarteburu.
ERREDAKZIO KONTSEILUA:
Iñaki Arrieta, Antton Bergara, Edurne Bilbao, Rosa Iriondo, Jose Inazio Sarasua.
KAZETARIAK:
Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro.
MAKETATZAILEAK:
Maite Rementeria, Edu Sanz.
PUBUZITATEA:
Nekane Etxaniz.
ADMINISTRAZIOA:
Josune Fernandez, M. Angeies Ortuoste.
KOLABORATZAILEAK:
Itziar Agirregomezkorta, Ana Aizpiri, Pello Aizpurua, Gotzon Arrieta, Pello Arrieta, Belen Arrizabalaga, Jon Barandiaran, Asier Eixaniz, Felix Etxeberria, liziar Fernandez, Koldo Galdona, Jose Mari Gaidos, Ina Garagarza, Gotzon Garate, Joseba Gorosabel, Xabier Gorriti, Alfonso GuiliO, Maite Hondo, KOKOE, Edurne Korta, Enrike Larrañaga, Imanol Lorraiiaga, Nerea Lodoso, Jesus Mari Makazaga, Iiiaki Odriozola, Jose Inazio Sarasua, Olga Unzilla, Miryarn Villasonte, Aitor Zabaleta, Yulen Zabaleta.
BANAKETA ARDURADUNA:
Imanol Larrañaga
INPRIMATEGIA:
Gertu koop. E.
(Zubillago Oftati}
TiRADA: 3.300 ale
LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92
**ISSN:** 1133-021X

**elgoiBARRENek ez du** bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esa nen eta iritzien erantzunkizunik.

kutica fundasiem
fundlacl6n ladwa

# ZENBAT BURU

## NAINBAT ABURU



# Eguberti on!

Erromatarrak beste hainbat herri desberdinekin, neguan, erdi aldera, ospatzen zuten Eguzki Berri (Eguberri). Orientetik datorren argia, alegia. Elizak kultu hau, Jainkoaren jaiotzarekin aldatu zuen, abenduaren 25ean ospatuz.

Negu Pazku Nagusiko usadio zaharrak hainbat elementu desberdin ditu. Hauetariko bat, beharbada zaharrenetarikoa, janarien "eskea" izan daiteke. Erdi arotik datorren ohitura da baserritarrek beraien zergak, "especie" deritzonaren bidez ordaintzea. Arkaikoak ditugu etxeko "suaren" inguruan jasotako erritoak, nire ustez San Juan "suarekin" lotu daitezkeenak.

Gaurkoa dugu Olentzero, izena eta etimologia; jatorria eta esangura, misteriotsu jarraitzen dute guretzat, nahiz eta ikerlari ospetsuenek, Azkuek, Barandiaranek, Caro Barojak, Donostiak, Lekuonak eta Satrustegik batez ere, berari buruz lan bat baino gehiago eskaini.

Ez dut zalantzarik erlijioak izan duen garrantzian gure jokaera aldatu ahal izateko. Juan Jose Lapitz gastronomo ezagunak dioen bezala, lehen Gabon gauean bijilia egiteko agindua zen, hau da haratuztea. Hau dela eta, euskaldunok, aza olioa, barraskilo edo karakolak, hauek ez baitira ez arrain ez haragi, bakailua, eta bukatzeko, nola ez, gaztaina edo intxaursaltsa jan izan ohi ditugu, mende haseran sagardoaz Iagundurik.

Honela ba, Euskal Herrian soistizio hau betidanik ospatu izan dugu jan-edarian, abestuz eta dantza eginez. Gaur egun ere jarraitzen dugu era honetan, baina eskaintza ugariagoak eta eros ahalmen handiagoak beste aukera zabal batean jarri gaitu. Zoritxarrez, denok ez ditugu aukera berdinak urtean zehar, eta jai hauek iristean ere desberdintasunak nabariago ikus daitezke.

Beharbada, gaurko kontsumo gizarteak itsutzen gaitu eta batzuentzat izango diren jai zoragarriak beste askorentzat, Sarajevo eta Txetxeniara joan gabe, ahulgarriak gerta daitezke urtero bezala. Kaleak argiz josirik, etxeetan gurasoak jostailu eta opariak erosten, batak bestea zorionduz eta "ondo pasau" esanez igaroko ditugu, arazoak alde batera utzi nahian. Norbaitek pentsa Iezake jaiak eguneroko errutina apurtu eta arazoak ahazteko jarriak direla. Ez nuke nireak izan daitezkeen lerro hauek, euskaldunok hainbeste maite dugun Gabon kanta batek dioena "Hator, hator mutil etxera..." gogoratu gabe uztzi nahi.

Arrazoi bategatik edo besteagatik etxetik kanpo ospatuko dutenei nire besoak zabaltzen dizkiet datozenean besarkatzeko. Besteei berriz, "ondo pasau".

**Jose Inazio Sarasua**

*Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, Foru Aldundiak eta Elgoibarko Udalak diruz lagundutako aldizkaria*

51(11

**Udal Euskara Batzordeak buzoneatu dituen egutegi txikietan, zergatik ez da Zazpiki Irratiaren telefono zenbakia azaltzen?**
Euskara teknikariarekin egon gara eta hiru arrazoi daudela esan digu:
Kopurua mugatua delako eta aukeraketa bat egin behar delako.
- Udal Zerbitzuek lehentasuna dutelako.
- lnork ez duelako proposatu.

## KEXAK

Ubitarte auzoan bizi den irakurle batek deitu digu kexa bat azalduz: Ubitarteko lorategietako belarrak larunbatean goizeko 8etan moztu omen zituzten eta bere ustetan ez dira egun eta ordu aproposenak langintza horretarako. Makinen zaratak ez omen zion lo egiten lagatzen.

## TXALOAK

"Elgoibarko Izarrak" antolatu berri duen Sukaldaritza Naturista ikastaroa txalotu nahi dugu. Batetik, ideia polita iruditzen zaigulako eta bestetik, sukaldaria (Iker Iriondo) benetan bikaina izan zelako. Bide batez, Jubilatuen Egoitzako arduradunak ere txalotu nahi ditugu, egoitzako sukaldea uzteagatik".

## HIESaren eguna

Abenduaren lean HIESaren egun mundiala ospatu zen. Errotatxok, era batean edo bestean, pertsona eta kolektibo guztien partaidetza eskertu nahi du. Pixkanaka, jendea onartzen doa HIESa denoi dagokigula eta, denon artean HIESaren aurka horroka egin behar dugula, marjinazioa baztertuz eta prebentzioa aurrera eramanaz.

Elgoibarko herritarrek, kolektiboek, eskolek, etab.ek ondo onartu zuten aipatu ideia, izara zuriak lazo gorriarekin jarriz eta mahai informatiboetara eta kontzentrazioetara jende mordoa hurbilduz. Aipatzekoa da, OHOko ikasleen partaidetza, kaleetan jarri ziren HIESaren prebentzioari buruzko marrazkiak eginez.

Hala ere, izara zuria lazo gorriarekin jartzera espreski gonbidatu arren, Errotatxotik ezin dugu eskertu, kontrakoa baizik, Udaletxeko buruzagien jarrera. Hauek, gaia aipatu eta gero, ez jartzea erabaki zuten. Penagarria, beraien elkartasun falta nabarmendu baitzen. Dena den, elgoihartarren erantzun gero eta zabalago eta positiboagoak, "gure ordezkariak" herriko sentimenduetatik urruti daudela adierazi zuen.

**Errotatxo**

## Herritar agurgarriak:

Orain dela sei bat aste agerturiko BARRENen Kiroldegiko zuzendaritzak bertara zuzendutako galdera bati erantzuna emanez, kantxako rnarkagailua abendurako konponduko zela adierazi zuen.

Abendua etorri zaigu eta markagailuak era berean jarraitzen du. Asmoa, beste markagailu berri bat erostea da, dagoenak haseratik arazoak besterik ez ditu eman eta. Hori dela eta, aurrekontua egin eta Udaletxearen baimena lortzen denean, markagailu berria izatea espero dugu. Baina aipatu, aurrekontu ezak sortu duela espero ez genuen atzerapen hau.

Besterik gabe, eskerrik asko.

**Kiroldegiko Zuzendaritza**

**OHARRA:**

**Datorren astean ez da alerik egongo.** BARREN egiten dugun guztion izenean Gabon Zoriontsuak eta Urte Berri On bat opa dizuegu irakurle guztioi. Errege bezperan, urtarrilaren 5ean, itzuliko gara ale berri batekin, ordura arte, ondo izan!

HARRIG2;IRRIGOIKOERROTA BERRITARRAK









BOLINTROKo
OGIAK GURE LABEETAN
EGINDA ESKAINIKO
DIZKIZUR:




Boileria
Okindegia
Egunean erretako kafea

d,4
aisho ittsoi tote

ERREMINTA
MAKINA
INSTITUTUA

ELGOIBAR

# ESKAINTZA FORMATIBOA

## 95-96 IKASTURTEA



## HELBURUA

Teknoiogio berriek sortzen dituzten beharrei egokitutako hezkuntz kalitate bat eskaintzea.

## III. MAILAKO MODULUAK

- FABRIKAZIO MEKANIKOA
- DELINEAZIO INDUSTRIALA
- AUTOMATIZATURIKO SISTEMEN ETA MAKINEN MANTENUA

mal— 1 1 11 1



## EKIPAMENDUA

- PRODUKZIO MAKINERIA: 3 CNC Torno, 3 CNC Fresadora, 2 Mekanizazio Zentru, 2 CNC Rektifikadora.
- CNC-CAM MODULU DIDAKTIKOAK: 4 Torno eta 4 Fresadora.
- CAD-CAM-CAE MODULUA: 15 Work Station 2D/3D eta Software integratua.
- ERREMINTA MAKINA KONBENTZIONALA: Tornuak, Fresadorak, Rektifikadorak eta Mandrinadorak, Zerrak, Zulatzeko makinak.
- METROLOGIA LABORATEGIA: Kontrol tridimensional makina motorduna, Laser Interferometroa.
- SAIAKUNTZA LABORATEGIA: Fotomikroskopio metalografikoa, Durometroak, Labea.
- AUTOMATISMO LABORATEGIA: Hidraulika, Neumatika, Elektronika, Elektrizitatea, Automata Programagarriak, Serboeragintzak.

## AURREINSKRIPZIOA ETA INFORMAZIOA

**MAIATZEAN EGIN BEHARREKOA**

- Bizilekuaren ziurtagiria
- Familia liburuaren fotokopia
- Errenta aitorpenaren fotokopia (aukerakoa)

San Roke Auzoa, 1 ELGOIBAR
Tlno. (943) 74 41 32 • Faxa: (943) 74 41 53
Ordutegia: 9,00etatik 13,00etara - 14,30etatik 17,30etara

7ₑ/1~ dete ene azomef acorre &~,

9l·1·· g"i44et44 eel-

Zbrte Smne oftatto- eta '54« de~da I



abonetan gaudenez, aproposa iruditu zaigu elgoibartarrez osatutako jaiotza bizidun hau erakusten duen erretratua argitaratzea. **Rufina Peñagarikanok** lagatako argazki hau duela 36 edo 37 urte ateratakoa da, 1958. urte inguruan, gutxi gora behera. Aita Agirreren eskola publikoko ikasleak dira bertan agertzen direnak.

Goitik hasita, ezkerretik eskumara: **Maribel Vazquez, Rufina Peñagarikano, Angelita De la Horra, Charito Espejo, Maria Jesus Gabilondo, Arantxa Andonegi, Nekane Canaban, Nieves Gabilondo** eta **Inmaeulada Ansola.**

Bigarren ilaran: **Emilia Loiola, Rosa Barrenetxea, Mari Jose San Millan, Mari Loli Urkidi, Juanita Garate** eta **Maribel Gonzalez.**

Lurrean jarrita: **Paulina De la Hoz.**

ZELETA
JATORRIZKO KALITATEA
EUSKAL BASERRI
BaraEklak
8047411/774wthsth idedaa
gaifido ioxfaila



ZELETA BASERRIA rr 74 30 22
San Migel Auzoa ELGOIBAR

U
ELGOIBAR

magu's
ILEAPAINDEGIA
EDERGINTZA
San Roke 6 behea tel. 74 34 91

PILAR IKASTETXEA

ZORIONAK
ETA URTE BERRI ON!

Elgóibar



ARANBARRI

GIIIIA ETA PLATAFORMADUN GARRAIOA

TeL 74 02 42 Tei. Mugikorra 908-77 06 37 ELGOIBAR



gorroño

dekorazioa

Gabon jai zoriontsuak igaro itzazue eta Urte Berri On!

San Bartolome, 21 - Tel. 74 01 91 - 20870 ELGOIBAR

gte.

F>110 Yy EiGyi 0 S

SAN FRANTZISKO KALEA 23, BEHEA ELGOIBAR TF1 74 10 94 - 74 37 50

# pittairaux ETILEETAPKG BERRIKUNTZA IDEKORMO JIANETAV IEZIMINWITRIAK

***Zer eratako lanak egin eta superbisatzen ditu GTEk bere bezeroentzat?***

Iturgintza eta kalelakzio instalazioak, barruniko nahiz kanpc>rako PVC eclo aluminiozko aroztegia, igehseritza, eskaiolak, kristaldegi artistikozt eta konbetuzionala, pintura apaingarria: imitaziozko akabatuak, iztuku veneziarrak, frantziarrak.... saneamencluak, Lan guztiak gremio bakoitzeko onenak egiten clitu.



Ongi eta garbi esan beharra dago gurekin egindako kontratuak ez direla bestelakoakbaino garestiagoak. Papeleoa eta nahi izan ezkero, subentzioen gestioa ere gure lana izten da.





***Zein lan harreman ezartzen du GTEk bezeroekin?***

Lehenengo kontaktua egiten dugunetik hasita, bai proiektua egiterakoan baita honen gampenean ere, gure arkitekto, tekniko eta dekoratzaileek, bezero balmitzaren gustu eta beharrez jarclun eta hitzegiten clute konfidantza osoz.



***Zeintzuk dira GTE bezalako enpresa batekin lan egiterakoan, bezero batek aurkitzen dituen abantallak?***

Argi eta garbi esan beharra dago gurekin egindako kontratuak ez direla bestelakoak baino garestiagoak. Papeleoa eta nahi izan ezkero, subentzioen gestioa ere, gure lana izaten da. Gainent, garantia tekniko eta estetikoak izango clitu, merkatuko benetako prezioetan. Gure bezerock ez dituzte orcIaintzen proiektua eta obraren zuzenclaritzaren gastuak. Hori guzti hori da eskaintzen dugttna.

***Hitzegin dezagun garantiei buruz.***

Bezeroarekin tratatzen dugun guztia alde hiek sinatutako kontratu baten bidez zehazten da eta bertan, prezioak, kalitatea eta zenbat clenboran bete behar clen espezitikatzen. FIorrez gain, materiale tekniko guztizt, hau cla, planoak, metnoriak, materia leen zerrenclak eta abar, sistema informatiko moclemoenen bitartez eta etengabeko eboluzioaren baliabicleak erabiliz tratatzen dint.

***Zer gomendatzen du GTEk altzarietan eta etxerako ekipamenduetan?***

Oso pozik gaude henienclik banatzen ditugun etxeekin, hatez ere, euren cliseinu, entikuntza eta zerbitzuetan eskaintzen duten maila handiko kalitatea clela eta. I3atzuk izendatzekotan, FAGOR, SELLEX, CA1TELAN. PEROBEL, GARNELO... aipatuko genituzke.






# BERISTAIN

## EDAR1BANATZAILEA

**Iñaki 17- 74 38 27**

OKEY

RAM

KELER
LAGER BEER

CT:Cola 211111
GoKe
MARCAS REG

40 ⁷⁴⁰ 11~h
— AGUAS —
ILL34111

**90~44 eta Zbite Effa mil**

# BET1 ARGi S.L.

Q; QD 41 41 41 41 •41 41 41 41 10 41 41 41 11 41 " " " r'sN rTh r"•+,



* SUKALDE TRESNERIA

* INSTALAZIO OROKORRAK

* OPARI ARTIKULUAK

**Zokioisoit et4 ittite lestis**

**Errosario kalea 6, behea. tr 74 16 44 ELGOIBAR**

# Zein opari jasoko zenuke gustura?



**ROSARIO ARANA**
78 urte, etxekoandrea

Gauza asko. Baina, batez ere, pakia. Neretzako osasuna eskatuko naban eta jendiantzako lana. Bestela, ogixa erosteko lain badaukagu.



**AMAIA ARRIETA**
38 urte, etxekoandrea

Edozer gauza, ze neri sorpresak gustatzen jataz. Dana dala, ez dot ezer konkretua espero. Mendirako erropia askotan oparitzen dogu.



**JON ARANZAMENDI**
9 urte, ikaslea

Futboleko zapatilak. Ez dakit zer ekarriko diaten baina urtero urtero gero eta gutxiago izaten dira. Dana dala, sorpresia izatia asko gustatzen jata.



**GORKA GARATE**
9 urte, ikaslea

Erloju bat eta monopolixa. Norrnalian eskatzen doten guztia ekartzen diate eta aurten ere eskatu dotena ekarriko diatela uste dot.

**SONIA ZAMBRANO**
22 urte, estetiziena

Ilusioa egin zidan lehen aldiz larrosak oparitu zizkidatenean. Aurten agian dirua oparituko didate eta sorpresatxoren bat ere eroriko da.



**JUAN GONZALEZ**
63 urte, jubilatua

Bat bera ere ez. Ez zait gustatzen opariak jasotzea, nahiago dut ni neuk egitea. Hala ere, beti erortzen da zerbait, eta eskatzen didatena oparitzen diet nik.






## Gorrekin komunikaziorako zeinu ikastaroa

Bergarako *Arans-Gi* Haur Gon'en elkaneko guraso eskolak, gorrekin komunikazio ahalmenak hobetu nahi dituztenentzako zeinuen hizkuntza lantzen ikasteko ikastaroa antolatu du. Urtarrilaren 10ean hasiko da eta 30 orduko iraupena izango du. Ikastaldiak asteartero izango dira arratsaldeko 6,30etatik 8,30etara bitartean. Ikastaroa Bergarako *Arans-Gi* elkartearen egoitzan izango da. Izena emateko edo informazio gehiago eskuratzeko, deitu Bergarako Gorren Eskolako 76 27 03 zenbakira.

## ■ Donostiara txangoa Gurutze Gorriarekin

Elgoibarko Gurutze Gorriak Donostiako Gabonetako Haurren Parkea eta Anoetako estadio berria bisitatzeko txangoa antolatu du 10 eta 13 urte bitarteko haurrentzat. Urtarrilaren 4ean izango da txangoa, goizeko 9,30etan trenez irten eta arratsaldeko 8etan, trenez bueltatzeko. Bazkaria norberak eraman beharko du eta irteeraren zenbatekoa 800 ptako da. Izena emateko Gurutze Gorriaren egoitzara zuzendu edota 74 38 64 zenbakira deitu.

## ■ Gabon Zaharrerako Udaltzaingoaren oharrak

Udaltzaingoak honako trafiko arauen berri eman nahi du hilaren 31n izango den Gabon Zahar azoka dela eta. Goizeko 10etan trafikoa eten egingo da Maalatik Santa Ana kaleraino eta Sigma eta Ikastolako aparkalekuetako ateak arratsaldeko betan itxiko dira. Hauez gain, beste erabaki hauek hartu dira: txerriki saltoklak janzea debekatuta dago eta baimenduta ez dauden postuak Maalan jarriko dira. Era berean, jendetza biltzen den eguna dela kontuan izanik, ihilgailuak ahalik eta gutxien erahiltzea eta seinalizazioak eta Udaltzainen aginduak betetzeko gomendatzen du Udaltzaingoak.

# Irudi eta mugimendu berriak aurtengo 1Parrokiko Jaiotzean



Urtero bezala, Elgoibarko Parrokiko Jaiotza Batzordeak egindako jaiotza ikusgarria rnartxan ikusteko aukera izango dugu Gabon Jaietan, San Anton egunera arte. Ohitura duten bezala mugimenduzko irudi berriak sartu dituzte: sei laguneko taldea ekintza ezberdinak burutzen, okina eta emakumea lanean, atso bat gorutan eta agure bat pipa erretzen. Mugimenduzko irudi berri hauekin 27 dira guztira mugitzen direnak.

Honez gain, jaiotzaren itxura fisikoa erabat aldatu da, mendiak, herria eta ur-jauzi berria ditu orain. Guztira 63 m2ko azalera dauka. Aurrera begira, fibra optikoa erabiltzeko asmoa dute, izarrez betetako zeruaren efektua lortzeko. laz bezala, elizako obrek irauten duten bitartean, Leku-Ederreko parkeko lokaletan egongo da ikusgai. Lokala, Leku-Eder S.A. enpresako Txun'uka jaunak lagatakoa da.



**Olentzeroren** izango da bihar, hilak 24, Gabon eguna, goizeko I letan Maalatik hasita. Elgoibarko Izarrak antolatuta Gabon kantak abestuz zeharkatuko dira herriko kaleak, eguerdi partera Plaza Handian bukatzeko. Bertan, haurrek Olentzerorengana hurreratu eta eskutitzak emateko aukera izango dute zein ondo portatu diren esanez eta merezimendu osoz jasotzea espero duten oparia eskatuz. Jarraian, goxokiak banatuko ditu Olentzerok.

# Zazpi 0 urte beteko ditu Gabon Za azoka egunean



Gabon Zahar Azoka egunean Zazpikik 10. urteurrena egingo du. Ospatzeko astebetez luzatuko diren ekintzak antolatu dira. Hilaren 26an ekintzen berri emango dute Maalan. Egun berean, gauez, Iruñako "Eguzki" irratiaren itxierari buruzko irratsaio berezi bat eta Uruguayko estradizioen inguruko zinta bat eskainiko ditu Zazpikik. Asteartean irrati libreei buruz hitz egingo dute Gasteizko "Hala Bedi", Iruñako "Eguzki" eta Ondarruko "Radixu" irratikoek Kultur Etxean arratsaldeko 6etan. Asteazkenean "Cronos" filme mexikarra eskainiko da gaueko 22,15etan. Hilaren 29an, osteguna, BARRENek ziurtatu ezin badu ere, herriko rock taldeek makrokontzertua eskainiko dute. Ostiralean afaria izango da Kimetzen. Izena emateko Lanbroan edo Txuri-Beltz-en 28a baino lehen. Prezioa 500 pta langabetu eta ikasleentzat eta 800 pta bestela. Hilaren 31n, Zazpikik zuzenean emango ditu eguneko gorabeherak.




**Elkarriko tailer lokalak** antolatuta, Elkarriko buru eta arima den Jonan Fernandez tolosarra izan zen Kultur Etxean joan den ostegunean. Fernandezek ordu erdiko azalpen hat egin zuen 94an zehar Euskal Herrian gertatu diren gertakizunen inguruan eta, batez ere, Irlandako bake prozesuaren inguruan. Ordubete pasatxo iraun zuen saioan entzuleek hartu zuten txanda eta iritzi ezberdinak plazaratu zituzten. Jonan Fernandezi Euskal Herriaren bake prozesuari buruz, hainbat galdera luzatu zizkioten.

## ■ Herrialde behartsuei buruzko erakusketa

*Mugen Gainetik* elkarteak, Hegoaldeko Herrialdeen Garapenerako erakunde ez gubernamentalak antolatuta, "Gosea: Garapenaren aurpegi izkutua" izenburupeko erakusketa burutuko da Kultur Etxeko erakusgelan. Gabonetan irekiko ditu ateak erakusketa honek, hilaren 25ean hain zuzen, eta urtarrilaren 8ra arte egongo da ikusgai. Aurkezpen egunean, *Mugen Gainetik* elkarteko kide batek erakusketan ikusi ahal izango diren argazki, bideo, liburu, artisau-lan, Iarnina etabarren azalpena egingo du. Testuinguru honetan beste bi ekitaldi antolatu ditu elkarte honek. Hilaren 29an, arratsaldeko 7etan "Gosea eta emakumea"ri huruzko hitzaldia izango da eta urtarrilaren 4ean, "La marcha" inmigrante beltzei buruzko bideo emanaldia leku eta ordu berean.

## ■ 39 taldek hartu du parte Jaiotzen Lehiaketan

Parrokiak antolatutako VIII. Jaiotzen lehiaketan 130 haurrek, 39 taldetan banatuta, hartu du parte. Aurkeztutako jaiotzak epaitzeko Javi Gomez apaizak, Gipuzkoako Belenzaleen Elkarteko kide batek, eta herriko Tere Lodosok, Aurori Antonek, Anton Zabaletak, Nico Molinak, Gemma Monrealek eta Eibarko La Salle ikastetxeko bi elizgizonek osatutako taldea osatu zen. Lehen sei sailkatuek oroigatTia eta oparia jaso zuten eta seigarrenetik aurrera oroigarri bana.

Sailkapena:

1- Maria Maguregi
2- Unai eta Eneko Etxeberria
3- Joanes Rodriguez
4- Ainhoa Dorado, Irune Martinez, Estela Quintana, Alba Manzano, Lucia Dieguez, Naiara Gomez, Cristina Conde, Sandra Montes, Jone Feijoo, Amaia eta Laura Vegas, Ainhoa Zapata eta Lucia Segura.
5- Miren eta Izaskun Esnaola eta Leire eta Izaskun Arevalo.

# Txomin Zabaleta:
# "Apaiz bokazioa ez da telefonoz edo faxez etortzen"

Goizero, gosaldu aurretik, eukaristia ospatzen dute. Bere gelan hiru pertsona bakarrik daude. Txomin Zabaleta elgoibartar gaztea, Teologia ikasten ari da, sei urteko iraupena duten ikasketak. Aurten laugarren ikasturteari ekin dio. Teoria ezezik, praktikak ere badituzte, "teoria bizitzako hainbat aspektutan nola isladatzen den eta nola praktikatu daitekeen ikastea garrantzitsua da". Gaur egun Irungo parrokian dago Txomin, sendotza talde baten ardura dauka, karitasen ere laguntzen du, kontseilu pastoralean ere sartua dago.

**Sei urte, eta gero?**

Teologia ikasteak ez du esan nahi hatabeharrez apaiz izan behar zarenik. Alderantziz, apaiz izan nahi duenak teologia ikasi behar du. Nik momentuz behintzat apaiz izan nahi dut, bestela ez nintzake teologia ikasten egongo.

**- Zer da fedea?**

Betidanik izan da nire etxean giro erlijiosoa. Txikitan monagilloa izan nintzen, gurasoen testigantza, sinismenean sartu ninduten neu ere eta... Bokazioa ez da telefono dei bat edo fax-ez bidaltzen dizuten zerbait. Poliki poliki, jakin gabe, agertzen dira susmo batzuk eta erabakia hartzen dezu.

**- Ez al dituzu tentaziorik?**

- Zer da tentazioa? Apaiz izatea kristau izatea da eginkizun konkretu batzurekin. Argi dago plantemendu serio batzuk egin eta erabaki sendoak hartu behar direla eta erabaki horiek konpromezu bat dakarte, noski. Horrek ez du esan nahi bizitzari ateak ixten dizkiozunik, alderantziz, irekia egon behar zara, beti.



"Pekatua norberaren kontzientziaren aurka joatea da"

**Zelibatoari buruz, zer?**

- Elizak ez du esaten apaiz izateko zelibe izan behar denik baizik eta apaiz ministeritzara zelibeek bakarrik dutela bidea. Ez da gauza bera.

**- Azken finean gauza biek ez al dute esaten zelibe ez dena ezin dela apaiz izan?**

Bai, baina ez da gauza bera. Nere iritziak ez du batere baliorik momentu honetan baina nik ez dut ikusten inkonpatibilitaterik apaiz izan eta ezkontzearen artean. Hare gehiago, aberasgarria izango litzateke elizarentzat apaiz zelibe bat, apaiz ezkondu bat eta, zergatik ez, apaiz emakume bat.

**23 urte dauzkazu. Ez al zara sekula maitemindu?**

Bai eta gainera sekula maitemindu ez den pertsona bat ezin daiteke ez apaiz, ez kristau izan. Azken finean, apaiza pertsona da eta sekula maitemindu ez dena ez da pertsona.

**Zergatik kristautasuna eta ez budismoa edo beste edozein?**

Nik kristautasuna ezagutu dut. Asia aldean jaio banintz Budista izango nintzela? Agian bai. Jainkoak bere agerpena egin du kultura ezberdinetan; agian erljio guztien atzean Jainko bera izkutatzen da. Kristauok Jesusengan ikusten dugu Jainko horren agerkunde haundiena, rebelazioa.

**Bizitza, hil ondoren dagoen zerura iristeko bidea al da?**

Bizitza ederra da, hala baloratu behar dugu. Heriotzarekin ez da dena amaitzen, dudarik gabe, baina kristau baten ikuspuntutik, zerua hemen hasten da, bizitzan. Gure esku dago norberaren bizitza zeru edo infernu izatea.

**- Eta zer da pekatua?**

- Azken finean, nik uste, norberaren kontzientziaren aurka joatea dela.

**- Zer eskatuko zenioke urte berriari?**

- Gauza asko baina guztiok zerbait gehiago elkar ulertuko bagina, gauza asko konponduko lirateke.

## Elgoibarko Haur Eskola

Arregitorre 4, tr 74 21 41

**urteko haur**

**ORDUTEGIA:** Goizeko 7,30etatik arratsaldeko 6etara

**3 HEZITZAILE**

• III **400 m² ko ESPAZIOA:**

**500 m² ko PARKE EDER** bat leku estali batekin

*f2,444* 94-4/t *fOteal*

*icturma% yotio~t 47,c: deta«aii*



momaik.

;- n--- n ki

<;1 4c.

/<# ŏ 4,

**Morkaiko M. E.ak**

9,,,,s. g.,,.. «.4

ofiet *dxveefoe*

ei,d~ 1.4(5~/

# URTEKO I3ATZAR OROKORRA

**ABENDUAK 29, osteguna.**

**19,30etan Kultur Etxean**

# AITZGORRIRA IRTEERA

**ABENDUAK 31**

**Goizeko 8etan, Sigmako zubian.**

## Elgoibarko EAJ-PNVk

*JAI ZORIONTSUAK opa dizkizue*
*Herritar guztioi.*
*Urte Zaharra ondo bukatu*
*eta*
*Berria hobeto hasi.*







# ETXETXO

**SUKALDE ALTZARIAK**

**ATEAK**

**TARIMAK ETA PARKETAK**

**LURREN ZEPILATU ETA BARNIZATUAK- PINKYa**

**PVC LEHIOAK**

Pedro Migel Urruzuno 10, behea.
Tel. 74 18 15
ELGO1BAR

# 1114.4 EggENISLIA

## Zein izan da 94ko notiziarik nabarmenena?



**Jose Bernal**
60 urte, pentsionista

Neri zuzenean eragin didan gauza bat: Udaletxeak uraren zerga mordo bat igo duela. Bapatean 5.000 pta igotzea oso fuertea izan da.

**Salud Blanco**
61_ urte, emekoandrea

Gauza on asko egin dira: Azkoitiko errepicle berria, Herriko Antzokia... Eliza berritzea ere garrantzitsua gure aurrekoek egindakoa gal ez dadin.





4111.1 1

**Jose Manuel Nova**
13 urte, ikaslea

Bi gauza: lan aldetik gauzak hobetzen ari direla eta bestetik, aurten duela bi urte baino hildako gutxiago izan direla HIESagatik.

**Ines Juaristi**
43 urte, espezialista

Betikua, lana eta drogia. Semia gaztia daukat eta ikusten det eurentzat gauza gutxi daudela. Oraindik gauza asko clago eitxeko, batez ere drogiakin.





**Jose Antonio Gonzalez**
32 urte, edari banatzailea

Orokorrean egin diren obra guztiak ondo daude. Nere ustez Guassak bizitza eman dio herriari eta bestetik, Azkoitiko errepidea, egunem erabiltzen baitut.



## Horiez gain beste guzti hauek ere gertatu dira...



## Mugerza krosa

Urtarrilaren 16an Mugerza krosaren 51. edizioa izan zen. 10 milioi t'erdiko aurrekontua izan zuen eta aunen, gainera, berrikuntza hat izan zen: emakumeen junior lasterketa, hain zuzen ere. Krosean lau elgoibartarrek hartu zuten parte: julian Garciak, Alberto Revueltak, Santi Maiztegik eta Antonio Fernandezek.

## San Antonak

Aspaldiko ohiturari jarraiki, San Anton egunean bada Elgoibarren artisautza azoka antolatzeko ohitura. Bertan, Euskal Herriko artisau onenen eskulanak ikusteko aukera izan zen. Besteak beste, egurrezko tailak, zumea, saskigintza, pintura edota marketeria. Horien artean zenbait elgoibartarrek beraien lana erakutsi zuten, hala nola, Jose juaristik zeramika, Leandro Rodriguezek egurrezko goilarak eta Carmen Elorzak gantxiloa.



GARAY
HARATEGIA
URDAITEGIA
San Frantzisko, 9. Tel. 74 13 92

RAIK
KAFETEGIA.
74 42 65

• Hilaren 18an GURASOEN ESKOLA jarri zen martxan lehen aldiz Elgoibarren. OHOn seme-alabak clituzten gurasoei zuzendua dago eta helburua gurasoek haurren heziketan clituzten kezka eta arazoak aztertzea da.

• Urtarrilaren 19an ELGOIBARKO IZARRA IDAZ LEHIAKETAko irahazleen sari banaketa izan zen. Guztira 282 lan aurkeztu ziren, 176 prosan eta 106 Etxegiña Bertso Lehiaketan.

• Hilaren 27rako sindikatuek deitutako GREBA OROKORRAren deialdiak erantzun zabala izan zuen Elgoibarren. Grebaren helburua Gobernuak aplikatu nahi zuen lan erreformarako lege berriarekin desadostasuna agertzea zen.

Elgoibarko Izarrak antolaturiko BEGIRALE IKASTAROAri hasera eman zitzaion urtarrilean. Ikastaroan parte hartzeko 30 gaztek eman zuten izena eta maiatzera arte Inzatu zen.

• Hilaren 28an Lanbide Heziketako ikasleek, langileek eta irakasleek BOSCO DEUNAREN JAIA ospatu zuten. Jokuak, lehiaketak eta bertsolari gazteak ere entzuteko aukera izan zuten.

• Urtarrilarn 5a eta 6a egun majikoak izan ohi dira haurrentzat ezezik nagusientzat ere bai. Erregeeek opariz betetzen dituzte arholapean jarritako zapatak. Urtarrilaren 5ean ERREGEEK OHIZKO KALEJIRA egiten dute, goxokiak emanez eta haurren gutunak jasoaz. Herriko nagusienak ere, San Lazaro egoitzakoek, Erregeen bisita izaten dute eta azkenik, Udaletxeko pleno aretoan haur atzeratuek opariak jasotzen dituzte Erregen eskuetatik.

## ".7 ¯,7v''" r.N(Th ¯V• ¯r



**Eduardo Arrillaga** argazkilari elgoibartarrak Bartzelonako "Eoto Gran Prix 93" lehiaketan "Familia" atalaren barruan bigarren eta hirugarren saria irabazi zituen.



**Maria De los Bueys** Sanchez-ek 100 urte bete zituen urtarrilaren 24an. Maria, Monzon de Campos izeneko herri batean jaio zen, Palencian, baina 74 urte claramatza Elgoibarren.

* KOLDO LIZARRALDE etnografo elgoibartarrak "Apuntes etnograficos I" izeneko libun.laren aurkezpena egin zuen urtarrilaren 17an.

* JASONE OSORO BARRENeko lankideak Eibar Hiria Gazteen IX. Ipuin Lehiaketako lehen saria jaso zuen euskarazko ipuinen atalean.

* Inazio Bereziartua Musikeskolako "HAUSPOA" AKORDEOI ORKESTAK lehen saria irabazi zuen Cantabriako II. Akordeoi Txapelketa Nazionalean.

* PEDRO MIGEL I URRUZUNO idazle eta apaiz elgoibartarraren irudia duen mataseilu berezia erabiltzeko baimena lortu zuen Elgoibarko Filatelia eta Numismatika elkarteak urteroko seilu erakusketa egiteko.




**gh46 6/616**
**urdaitegia**

*Gabon zoriontsuak opa dizkizuet herritar guztioi eta bereziki urtean zehar zuen konficlantza erakutsi diclazuenoi.*

Merkatu Plaza, 37. zbka. 74 25 36

La Estrella
ASEGURUAK

• ELKARTEEN ALDAKUNTZA ELKARTZE ETA ERAKETA.
• LAN, KONTABILITATE ETA FISKAL AHOLKULARITZA,
• ALOKATZE KONTRATUAK
• JUBILAZIOA (Pentsioak)

P. M. Urruzuno, 6. Tel: 74 31 40. Faxa: 74 41 23

**Ametsa**
**KAFETEGIA**

Gabon zoriontsuak
opa dizkizuegu
elgoibartar guztioi

San Inazio, 2 ☎ 74 27 22 ELGOIBAR



## Santa Klararen 1/111. mendeurrena

Asisko Santa Klararen iaiotzaren VIII. urteurrena ospatu zen joan den otsailean. Data berezi hon zela eta, Elgoibarko Klaratarren lagundlak hainbat hitzaldi antolatu zituen, ot.sailare.n 28a eta martxoaren 4a bitartean.

## Santa Ageda eguna

Otsailaren 5ean Santa Ageda eguna ospatzen da. Aurten, Elgoibarko Izarrak usadio zaharra berreskuratu nahi izan du eta auzoz auzo ibili ziren eskean. Santa Ageda egunean, berriz, urtero ibili ohi den tald.ea aritu zen kaleetan zehar. Azken hauek ornenaldia egin zioten Santi Kortaberria zenari.



atetueta
otoo
PAfyq
ooomvc./
ZAPATAK ETA POLTSAK
San Frantzisko 2 - .. 74 04 95 - ELGO[BAR

USATORRE
Taberna
San Antolin. Tel. 74 17 99


Gizakia ez da lanaz bakarrik bizi.
Ondo pasa Gabonak!!

EGAFIR
kotxe konponketak
P. Muguruza 18.T2 74 01 98



## Ihauteriak

Otsailaren 12an hasi eta 15era arte ihauteriak ospatu ziren. Urtero bezala era guztietako inozorroak ikus zitezkeen, hal larunbat gauean bai eta astearte arratsaldean ere, azken egun horretan ume eta gaztetxoak izan zirelarik protagonista nagusi.

- Hilaren 3an ospatzen da SAN BLAS EGUNA. Egun horretan hain ezagunak cliren opilak, kanclelak, gatza, kordelak eta fruta bedeinkatu ziren.
- TXANKAKUA ELKARTEAK NEGUKO KANPAINA bat antolatu zuen. Kanpainan egindako zozketan saritutako sei zenbakietatik lau baino ez ziren agertu.
- Elgoibarko xake jokalarien elkarteak, ZUBDONDOK, EGOITZA BERRIA estreinatu zuen lehen C.D. Elgoibar futbol taidearen ofizinak zeuden lekuan.
- Elgoiharko Erreminta Makinaren Institutuak ERREMINTA MAKINARI BURUZKO MUSEOA egiteko asmoa erakutsi zuen. Helburua: sektorearen hilakaera erakutstea, ikerketa bultzatzea eta sektore honen ondarea ezagutaraztea,
- Otsallaren 22an sinatu zuten Elgoibarko UDALAK ETA ELGOIBARK0 IZARRA Kultur Elkarteak 1994. urterako hitzarmena. Bertan Elgoibarko Izarrarentzako dirulaguntza 10 milioitan zehaztu zen.

77n- f/n7'ır_/‹\ +

W aa. w ii\ ■



**Alberto Revueltak,** Foru Aldundiak ttrtero antolatzen duen "Gazteen kirol galia" deritzonaren barruan, aipamen herezia jaso zuen, "promesa" mailako korrikalariei dagokien aipamena, hain zuzen.



**Carmen Perea** korrikalari gazteak Euskadiko 800 metrotako txapelketan garai‘ pena lortu zuen. Era berean, seigarren postua lortu zuen Espainiako txapelketan.


BAMA S.L.
ERAIKUNTZAK



ETXEBIZITZA
ETA
PABILIOI INDUSTRIALEN
PROMOZIOA

San Inazio,4 - Tel 74 14 99
ELGOIBAR (Gipuzkoa)

GSICYDG
AUTOMATISMO
ELEKTRIKOAK 5-10*

San Roke 30 behea - Tel. 74 38 09 - ELGOIBAR

ETXEPE
MEKANIZATUAK
MEKANIZATU HAUNDIAK
MPI BEREZIAK
153 Potsa kutxatila
lbaitarte kalea, 2
74 12 97 - 74 06 64
Faxa 74 43 21

## IGPak Elgoibarren



Martxoaren lehen egunetan eman zitzaion hasera Maltzaga-Url3ina ardatzari buruz eztabaidatzeko antolatu ziren Interbentzio Gune Partehmtzaileak deritzonari (IGP-NIP). Leizarango autobidearekin gertatu zena ikusita, proiektuaren asmoa gatazka soziala ebitatzea zen. Gaurregnn oraindik orai.n pi.1-pilean dagoen gaia da.

## Eskubaloi Taldeko Jubenilak, Gipuzkoako hcapeldun



Elgoibar K.E. Eskuhaloi Talcleko jubenilak Gipuzkoako ligako txapeldun geratu ziren bigarren niailan. Hatualau particlutatik harnairu irabazi eta bat galdu zuten.


- Konfabilitate
- Lan
- Fiskal

URKIDI
AHOLKULARITZA

ASEGUROAK
Kalamua 12 ELGOIBAR Tel- Fax: 74 18 91

KALAMUA
TXAPA
ALMAZENA
Tel 19 93 65 DEBA
42. postakutxa ELGOIBAR

ARAZOAK ZURE AHOTSAREKIN?
Landu ezazu!
Polipoek, nociubek, ahotsaren erabilera okerrak, etab...
ERAGINDAKO RONKERAK
ANGELA ZABALETA AIZPITARTE
DEITU 74 15 56 - 11 03 51

Ondo pasa Gabon jaiak eta hobeto hasi Urteberria!

AGIRRE
HARATEGIA
Zorionak!
Santa Ana, 7. Elgoibar
☎ 74 05 97

oul HARITZ DANTZARI TALDEA, Pariseko "Champs Elysees" antzeztoki ezagunean izan zen martxoaren 12an, Juan Antonio Lirbeltzek zuzenduriko "Alakiketan" saioa antzezten.

• JUAN KARLOS CARRILLO debarrak 35 oleoko erakusketa izan zuen ikusgai Kultur Etxeko erakusgelan martxoaren 18tik apirilaren 3a bitartean.

• SAN MIGEL ERREKASTOAN OBRAK egiteko proiektua onartu zen martxoan. Honen arabera, San Migel errekastoa Deba ibaira arte bideratuko da, 140 metroko luzeraz eta 4 metroko zabaleraz.

MORKAIKOK BAZKIDE BERRIAK egiteko "2.000 bazkide kanpainari" ekin zion martxoan. Asmoa, mendizale elkarteak aspalditik egiten zuen bazkide txartelaren ohitura berreskuratzea.

• Lehen AUTOMODELISMO ERAKUSKETA burutu zen martxoaren 19an Mintxetan. Lehen edizioa izateko arrakasta handia eduki zuen.

Elgoibarko Txirrindularien LAGUN TALDEAK Plaza Txikiko arkupeetako egoitza berria inauguratu zuen martxoaren 5ean.

411 ZUHAITZ EGUNA ospatu zen martxoaren 12an. Herriko ikastetxeetako haurrek 25 arbola landatu zituzten Mintxetako inguruetan.

## PROTA



**Garbiñe Del Hoye** diseinatzaileak Alemaniako Di.isseldorf hiriko IGEDO nazioarteko cliseinu ferian lehen saria irabazi zuen lenzeria edo barruko arropen atalean.



**Ramoa Maiztegik** Gipuzkoako Odol Emaileen urrezko garaikurra jaso zuen. Elgoibarko Odol Emaileen Elkarteko fundatzaileetariko bat izateaz gain, 3.0 urtetan haren arduradun izan da.

* PAKO JUARISTI martxoaren 4ean joan zitzaigun. Euskararen alde hainbat lan egin zituen elgoibartar hau antzerki eta dantza munduan ere aritu izan zen.

* ZABALE ANAIEK, Elgoibarko trikitilari eskolako irakasle direnek, Euskadi Irratiak antolatutako Pieza Berrien Lehiaketako arinarin sailean lehen saria irabazi zuten martxoaren 19an.

* IRATI AGIRREAZALDEGI Bilintx Bertso sariketako finalera heldu zen. Martxoaren 17an izan zen finalean ere hikain aritu zen.

* NATHALIAK, "canci6n melOdica" deitzen den atalean kantatzen duenak, estrainekoz abestu zuen Elgolbarren martxoaren 18an, ostirala, Guass dantzalekuan.

* GORKA GARATEK, Ibai Gimnasioko judokak, Gipuzkoako selekzioko kide bezala parte hartu zuen martxoaren 12an ipar aldeko selekzioaren aurka.

MANCISIDOR HERMANOS, C.B.
Mekanizatuak
Mandrinatuak
Planu bidezko piezen fabrikazioa eta mekanizazioa orokorrean.

74 30 55
FAX: 74 37 77
ELGOIBAR

ORAIKO
SAN FRANZISKO 25
ELGOIBAR




## Intsum isoak epaituak

Apirilean epaitu zituzten Aitor Esnaola eta Iban Esnaola elgoibartarrak. Alejo Roloren epaiketa atzeratu egin zen, eta Esteban Gabiola eta Luziano Arregi ekainean epaitu zituzten. Elgoibarko Talde Antimilitaristak mobilizazio ugari antolatu zituen epaiketak eta intsumisoei ezarritako zigor erabat ezberdinak salatzeko. Udalak PNV, HB eta EA alderdien aldeko botuekin eta PSOEren aurkakoekin, Talde Antimilitaristak aurkeztutako mozioaren pumtu gehienak onartu zituen.





## KirolBARREN 93

BARRENen eta Udal Kirol Zerbitzuaren eskutik KirolBARREN ekitaldiaren lehen edizioa ospatu zen apirilaren 27an. Ekitaldian zehar 93ko kirolari onenaren izena ezagutarazi zen; Anjel NIari Albizu judoka izan zen. Albizuk BARRENeko irakurleen aldelik botu gehien eskuratu zituen. Ekitaldiaren ostean, kirola eta profesionaltasunari buruz jardun zuten Felix Iriurnttegi mendizaleak, Andoni Ima.z Errealeko jokalariak eta Aitor Elkoro pilotariak.

## I. Haur Krosa

**Ikastolak** antolatutako I. Haur Krosean 400 haur baino gehiago aritu ziren. Ekimen honek izugarrizko arrakasta izan zuen partaidetza uste baino handiagoa izan baitzen.

DEBABE
UDAL MIN EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA
NAPARROA ENPARANTZA. 2
'Jr 74 2731
201370-ELGOIBAR

94,e~
eta 24te
Opt

Eragiok, mutil
maite duan hizkuntzari:
Euskara ikasi artean
euskara ikasi artean
Txipli, txapla, pun."

14tetti
Liburudenda
904~14
eta
Witte 9eiva 611

San Bartolome, 5
74 04 98

EROSKi
oltdd fzer~ 9Aalo«

• MEKANIKAK ETA INSTITUTUAK BATEGITEAREN AURKEZPEN OFIZIALAren ekitaldia egin zuten apirilaren 25ean. Bateratzearekin LOGSE erreformaren lehen urratsak eman zituzten bi ikastetxeek.

• ODOL EMAILEEN ZILARREZKO GARALKLIRRA jaso zuten 23 elgoihartarrek apirilaren 17an Deban izandako ekitaldian. 25 alditan baino gehiago odola emateagatik jaso zuten garaikurra.

• MUGERZA KROSA DATAZ ALDATUKO DELA jakin genuen apirilean. Urtarrilaren l5ean ordez, otsailaren 5ean izango da 95ko Mugerza Krosa.

40 EMAKUME INTSUMISOEK INTSUMISIOAREN ALDEKO JARRERA azaldu zuten beraien burua intsumiso eginez. *Kalera* Emakume Gazteen Taldeak 37 emakume intsumisoren zerrencla aurkeztu zuen.

UDAL LUDOTEKA apirilaren 24an ireki zen lehendabizikoz. Lehen saialdi honetan 100 haur baino gehiagok parte hartu Zuen.

• ADORE HERRI EKIMENAREN AURKEZPENA izan zen apirilaren 20an Kultur Etxean. Drogomenpekotasunei aurre egiteko, duela urtebete sortutako elkartea da Aciore.

## PROT1'1(7 17\- /1\ \

"001%1■11 j 111117~



**Javi Ferreño** Karakatetik behera parapentean ikusi ahal izan genuen. Apirilean ezezik, udaberrian eta udan ere, ipar haizea zegoenean, parapentean hegan ikusi ahal izan genuen.



**Pello Ezkurra** elgoibartarrak apirilaren 8tik 24ra bitartean margoen erakusketa izan zuen ikusgai Kultur Etxean. Leku itxi batean egiten zuen lehendabiziko erakusketa izan zen.



**Jesus Mugerzak** eta bere sendiak San Migel auzoko Altzate haserrian nola bizi diren erakutsi ziguten. Kaleko bizitza laga eta baserriaren aldeko apustua egin dutenen adierazgarri dira.



**Jose Juan Barrenehrea,** I. Mendi Bizikletako antolatzaileetariko bat izan zen. 95ean ere, mendi bizikleta trabesia antolatzeko prest agertu zen.

Eguberri On!



ELGOIBARKO IKASTOLA





## Elgoibar-Azkoitia errepidearen inaugurazioa

jose Antonio Ardanza lehendakaria, Eli Galdos Aldun Nagusia, Elgoibarko, Azpeitiko eta Azkoitiko alkateak etaJaurlaritzako eta Aldundiko ordezkari ugari izan ziren Elgoibarren maiatzaren 20an burutu zen Azkoitia-Elgoibar errepidearen bigarren zatiko inaugurazio ekitaldian. Azkoitia eta Elgoibar bitarteko 17 kilometroak burutzeko ordu erdi behar zen lehen; orain 7 bat minutu.

## Mintzetako muskulazio gela

Maiatzean ireki zituen ateak Mintxctako muskulazio gela berriak. "Kirola guztiontzat" filosofiapean, herritar guztiek kirola egiteko azpiegitura egokiak jartzeko konpromezua hartu zuen Udalak.





## Elgoibar Ezagutzeko Giltza

Caja Laboral-Euskadiko Kutxak *El,t4oibar Ezagutzeko Giltza* Lehiaketa antolatu zuen maiatzean zehar. Guztira 250.000 pta banatu ziren saritan. Sarituak hauexek izan ziren: jose Angel Zabala, Mari jose Estibariz, Nlaria Jesus Leiaristi eta Miren Arrieta.


foto azkue Zoitiostalt eta 61.1

San Bartor-oing 26, Tet. 74 08 48

UCUTICUE 1DAN

Enpanadak

Baserriko ogia Onjo pae1 jala

B. Ecenarro, 1 tr 74 33 92

DORI lIrdailegia



1121LITXTE ONENEKO PRODUICTUAK

genbuta4 eta 14te Veva OwI

Er osario 29.11 74 11 92 ELGOIBAR

• PREBENTZIOAREN ASTEAN zehar hainbat ekitalcli burutu zituen Errotatxok. Prebentzioaren egunean herriko 36 talde biltzea lortu zituen.

• ELGOIBARKO DUATHLOIA burutu zen maiatzaren lean. 166 korrikalarik parte hartu zuten. Gizonezkoetan Felix Martinezek, Espainiako txapeldunak irabazi zuen eta emakumezkoetan, Dina Bilbao onclarrutarrak.

• TRINITATE JAIETAN aspaldi egiteari utzi zitzaion sukaldaritza lehiaketa berreskuratu zen. Jose Luis Arana sukaldaria izan zen ekimenaren bultzatzailea. Eigoibarren ezezik, Mendaron ere ospatu zituzten Trinitate jaiak,

• HODEI astiaidiko taldeak gazteei zuzendutako TREBETASUN SOZIALEN PROGRAMA marIxan jarri zuen maiatzean. Helhurua g,azteei gizartean hehar bezala moldatzeko gaitasuna ematea da.

• GAZTETXEA BOTA ZUTENEKO HIRUGARREN URTEURRENA zela eta, hainbat ekitaldi burutu ziren maiatzeko bigarren astebukaeran Gazte Asanbladak antoiatuta.

• Mekanikako ikasieek UDABERRI EGUNA ospatu zuten urteroko ohiturari jarraiki. San Lorentzo auzoan igaro zuten jaiegttna.

• Galiza Kultur Etxekoek "DIA DAS LETRAS GALEGAS" ospatu zuten maiatzean. Ohizko Chaves tiraldiez gain, folklore ekitaldiek eta Galiziako jakien dastake.tak osam zuten jai egitaratta,



**Jose Gurrutxago** korrikalari beteranoak maiatzaren San Mintxetan burutu zen Euskadiko Beteranoen Txapelketan parte hartu zuen 100 metrotako lasterketan. Adinak garrantzirik ez duela erakutsiz, 100 metrotako bigarren seriean korritu zuen Ego-Tokikoak, 15"02' eginez.



**Arnaitz Gorriti** bertsolari gazteak, Oñatin izan zen Ernilio Urzelairen omenezko sariketan finalera pasatzea lortu zuen.

* JOSE LUIS GONZALEZ, Valencia taldeko atezain eigoibartarra, guztion ahotan egon zen maiatzean. Deportivo taldearen penalti bat geratu zuen, liga irabazteko erabakiorra izan zen partiduan.

* AITOR ETA IBAN ESNAOLA intsurnisoei bi urte, lau hilabete eta egun bateko zigotra ezarri zitzaien.

* GARBIÑE DEL HOYO diseintzaileak Expoconsumo ferian lehen saria jaso zuen haurren jantzien sailean.

* SAN MIGELEKO BOLO TALDEA bigarren geratu zen txirlo baten aldeagatik Gipuzkoako XXV. Bolo Txapelketan.

* ESKUBALOI TALDEKO JUBENIL TALDEAK "Liga Vasca" deritzon gorengo mallara igotzea lorttt zuen.

* IKASTOLAKO 8. MAILAKO TALDE BATEK, Jabier Larrafiaga eta Sebas Lartaftaga irakasleen eskutik Caja Laboral-Euskadiko Kutxak antolatutako II. Sketch lehiaketan hirugarren saria irahazi zuen.




Garbiñe Ecte,te

-Aurpegi eta gorputzeko tratamenduak
-DepileZiO elektrikoa eta 11017CaR
-Solariuma

P.rL LirruzuRo 27. Tel· 74 31 32

Zorionak eta Urte Berri On!

C)ireinkbffb 1P Marv / San Frantzisko 26. tr 74 25 35

Gabonetako eskaintza berezia

**Urrezko bi erloju zozketatuko ditugu!**

Zatoz eta 1.000 pezetako gastuagatik zu ere zozketan sartuko zara.
Zozketa 1995eko urtarrilaren 5an izango da dendan.

Zatoz! Zure zain gaude.

# GERTAERAK



AZPILIKUETA

## 125 urte Elgoibarren

Maalako Egoitzako Karidadeko monjek Elgoibarren daudenetik 125 urte bete zituzten ekainean. Urteurrena ospatzeko ikasle ohiek bazkaria antolatu zuten. Mezaren ostean omenaldia egin zitzaien Plaza Handian.

## Eskalada txapelketa

Morkaiko Mendizale Elkarteak antolatuta. Euskadiko eskalada eta dantza txapelketan eskalatzailerik onenak ikusteko aukera izan genuen. Gizonezkoen sailean Gotzon Gardeazabalek irabazi zuen eta emakumezkoetan Josune Bereziartuak.






## Paper kontenedoreak herrian

Deba Beheko Mankomunitatearen ekimenez, papera eta kartoia birziklatzeko programa pilotu bat jarri zen martxan ekainean. Metalezko 23 kontenedore urdin jarri ziren, zabor kontenedore berdeen aldamenean.

## Herriko Antzokia inauguratua

Negu guztian zehar itxita egon ondoren, ekainaren haseran ateak ireki zituen Herriko Antzokiak. Udan zehar Herriko Antzokiko zine komertziala doan izan zen eta abuztuan, ohitura den bezala, Ongarri Zine Klubak aire libreko zinea antolatu zuen Plazan.



FERPY DEGUSTAZIOA

ZURE KOIOITEAK EGITEKO LEKU APROPOSENA!

ottiohatt et4 ititte 641

Plaza Txikia z/g z. 74 43 45 ELGOIBAR

ZOBEL ZB

q.41E071 50Z90717.51"

Pr1.554 77141guEl

San Roke 13 behea. Tel: 74 34 01

kirolak

Antonio Arrillaga 14 tr 74 01 80

Gabon jaietako opariak egiteko materiale eta arroparik onenak dauzkagu. ASTORE kirol etxearen denda baimendua izanik, Errrealaren karniseta, txandal eta poltsa ofzialak ditugu Etzazu aukera paregabe hau galdu. Zain gaituzu!

40 tit

ileapaindegia

ZartinraU

San Inazio 4, Tel. 74 27 25

# Iraegul

sop

41111 5 1111 1119 1

**ERROTULUAK • ERROTULAZIOA**
**SE1NALIZAZIOA • SERIGRAFIA**

ko
apuzkoara e
bailatzail
ESSUSIB ck.

## RotaGraphics

SEKUENTZIAN AZALTZEN DIREN HIRU IRUDIKO IRAGARKIAK




ETZAZU GEHIAGO PENTSATU, JENDE MULTZO BAT GELDITZEKO DAGOEN EDOZEIN TOKITAN ROTAGRAPHICS-EK GELDIARAZIKO DU.

**FABRIKAZIOA ETA SALMENTA**

Olaso Kalea 55zbk. A 3. solairua
Tel. 74 39 52 - 74 37 06 - FAX 74 39 51
ELGOIBAR



ZORIO
e
Urte F

ane



# DEKORAZIOA

Santa Ana kalea 2 * Tel 74 35 09 • 20870 **ELGOIBAR**

X

On!





11²111E1J1N AX, S.A.

Olaso Kalea, 15. Tel.: 74 41 44 - 74 41 74. Fax: 74 40 76 **ELGOIBAR**
309 postakutxa - 20.600 **EIBAR**

PNEUMAX

**AUTOMATIZAZIO NEUMATIKARAKO OSAGAIAK**





EDOZEIN ARAZOŔ AURRE EGINGO DIOTEN ELEMENTU NEUMATIKOAK





# EL ALMACEN DE ELGOIBAR
## Altzariak

ESKAINTZA BEREZIAK

*2 eta 3 plazatako sofak:*
***39.000 pta***

*Tresilloak:*
***57.000 pta***



eta orain...

Koltxoi bat erosteagatik laminadun somier bat oparituko dizugut!

94,44 91.1~ 1⁴ et4
lobtee dotta 611

Urasandi, 2. Tel.: 74 29 41 ELGOIBAR

**UDAL AURREKONTUAK** ekainean onartu zituen plenuak. Onartutako aurrekontuaren zenbatekoa 1.155 milioi ptakoa izan zen.

• **NAHASTE BORRASTEAREN 10. EDIZIOAN** inoiz baino herritar gehiagok parte hartu zuen. Emakumezkoen presentzia ere inoiz baino nabarmenagoa izan zen.

**EUROPAR LEGEBILTZARRERAKO HAUTESK1UNDEAK** izan ziren ekainaren 12an. Elgoibarren ere, Euskal Herri osoan bezala, alderdi abertzaleek behera egin zuten.

**OSTEGUNETAKO MERKATUA PLAZA HANDIAN FINKATU** zen ekainean behin betirako. Trinitate jaiak zirela eta izan zen aldaketa baina, harrera positiboa ikusita, bertan lagatzea erabaki zuen Udalak.

4111 **LEIZARPE** espeleologi taldeak **FOSILEN MUSEOA** ireki zuen Muguruza ikastetxeko lokaletan. Euskal Herriko paleontologiari buruzko bilduma aurki daiteke bertan.

• **ESKOLARTEKO JOKUEN FINALAK** burutu ziren ekainean. Hini ikastetxeetako haur gehienek hartzen dute parte eskolarteko jokuetan eta unero 1.000 haur inguru aritzen dira.

1110 Morkaikok eta Elgoibarko Izarra elkarteek "LURRA **ETA HIZKUNTZA**" eguna ospatu zuten ekainaren 5ean. Finalista egunaren ekitalclien barruan domina banaketa egin zen San Pedron.



**Gorka Garatek** judoko Euskadiko titulua lotu zuen Euskadiko Eskolarteko txapelketan. 15 urtez azpiko eta 50 kilorainoko Euskadiko onena zela argi utzi zuen judoka gazteak.



**Josu Mulika** dantzariak Arteszenaren "Amets Beroak" izeneko dantza ikuskizunean parte hartu zuen koreografo bezala.

* **MIRARI OSORO** gaztearen "Ruta Quetzarari buruzko maketa, Miguel De La Cuadra Salcedoren TVE1eko programan parte hartzeko hautatua izan zen.

* **PEDRO GALLASTEGI** omendu zuten Trinitate jaietan sukaldaritza lehiaketaren bultzatzaileetariko bat izateagatik. Haren alargunari garaikurra eman zitzaion.

* **IÑAKI UlAZIA, TOMAS PEÑA ETA MIKEL ALBERDIK** osatutako taldea izan zen Morkaikok antolatutako mencli itzulian lehen iritsi zena, 6 ordu eta 57 minutuko denbora eginez.

* **LETICIA ASTRAY** Espainia rna ila ko kontzentrazio baterako deitu zuten eta **JON ZUBIAURREK** Gipuzkoako Selekzioan jokatu zuen. Biak dira Eskubaloi Taldeko jokalariak.

* **IKAS-BLAI** taldea Euskadiko txapeldun izan zen eskubaloian infantil mailan. **IKAS-GORRI** taldea, berriz, herri mailan hiru kiroletan izan zen txapeldun.


• *Yliazio ,O~...ipazaw* **Cilusijieskotet** •

***Inazio Bereziartua Musikeskolak Gabon jaiak kantu, musika eta dantza lagun dituzula pasa ditzazun opa dizu.***

**ostarku**

**Santa ana, 5 Tel. 74 06 46**

**Argazlki errebelatua ordu lean**
**Erreportalak**
**Ezkontzak**
**Estudio argazklak**
**Jaunartzeak**
**Karnetak**
**Argazki niateriala**

GR AERAK



## Elgoibar Sahara

Elgoibar, Saharako Daura herriarekin anaikidetu zen ekainaren 26an. Saharako Tindouf izeneko errefuxiatuen kanpamentuan elkartu ziren Elgoibarko alkatea, jose Inazio Elkoro-Iribe, eta Daurako alkatea, Mon Ali Kentani. Daura 5.000 biztanle dituen herria da, ahuntzak eta ganbeluak dituzte eta nekazaritzan ere hasi dira. Tindouf-en ez da dirurik erabiltzen, lana denen artean banatzen cla eta ordainez hezkuntza, janaria eta hestelakoak jasotzen dituzte.

## Ikurriñak 100 urte

Uztailaren 14an ospatu zen lehenengo ikurriña jarri zeneko 100. urteurrena. Egun horretan ikurriña ikus zitekeen bai Udaletxeko balkoian, bai eta herriko beste hainbat etxebizitzatan ere. Arana Goiri anaiek diseinatu zuten ikurriña, hasera batean Bizkaiko bandera moduan. 1981ean Euskolaurlaritzak EAEko bandera ofizialtzat hartu zuen





## Haritzek 20 urte

V1II. Nazioarteko Folklore Jaialdia izan zen uztailaren 2San. aurtengoan Argentina eta Lituaniako taldeak izan zirelarik. Honekin batera, 20. urteurrena ospatu zuen Hadtz Dantzari taldeak. 1964. urtean Ion Arrieta eta Lurdes Odriak talde bat prestatu zuten San Bartolome jaietan dantzatzen zen soka clantza indarberritzeko. Haritz Dantzari taldea deitu zioten.


SIZN PEMO dATETXEA




San Pedro Auzoa. "fel.: 74 0t 10. ELGOIBAR

LANDA HARATEGIA

Gabon Zoriontsuak eta Urte Berri On!

San Frantzisko 23,
Tel. 74 27 58

• DANOBAT TALDEAK ETBko "Empresa Vasca" programak, enpresa kalitateari. emandako saria lortu zuen.

• Elgoibarko Udal Kirol Zerbitzuak, Deba Beheko eta Garaiko beste 13 Udalekin batera, "KIROLA EUSKARAZ" IZENEKO PROGRAMA martxan jarri zuen. Helburua, kirola bultzatu eta euskara kirolaren esparruan barneratzea.

• Elgoibarko Urgazi Triathloi Taldeak HAURRENTZAKO DUATHLOIA antolatu zuen aurten lehen aldikoz San Bartolome jaietarako.

• Hilaren I5ean eman zen AIRE LIBREKO LEHEN PELIKULA, Aladclin hain zuzen.

• OHOko 200 haur baino gehiago aritu ziren C.D. Elgoibar Kirol elkarteak antolatutako lehen FUTBOL JAIALDIAN.

• San Bartolome jaietako KARTEL LEHIAKETAren habazleak Eduardo Arrillaga eta Esmeralda Zapparoli izan ziren "Abuztuaren 23a" lanarekin.

## PROTAGONI



**Xabii Gomez,** 24 urteko azkoitiar apaiz gaztea Elgoibarrera iritsi zen. Ordura arte Joxin Arregik egiten zituen parroki-lanak betetzera etorri zen. Aurretik, diakono izan zen Donostiako Bidebieta auzoan, La Paz-en eta Legazpin.





**Iñigo Otañok** Ikaspilota elkarteak antolatutako I. Oteiza ipuin lehiaketa irabazi zuen 18 urtetik gorakoen mailan "Hogeitabatgarrenean aidanezu lanarekin. **Xabier Arrillagak,** berriz, gaztetxoen mailako lehen saria eskuratu zuen "Ni pilotatxo bat" ipuinarekin.

* MANOLO ESNAOIA C.D. Elgoibar elkarteko datozen bi urtetarako presidente aukeratu zuten ekainaren 28an.

* CARMEN PEREAK 5. postua lortu zuen 800 metroko Espainiako Thapelketan.

* JABIER UZURIAGA elgoibartarra Espainiako txapeldun izan zen "tiro al helice" kirolean.

* JOSU AIZPURUA gazteak La Union elkarteak antolaturiko arrantza txapelketa irabazi zuen, nagusien eta haurren kategorian.

* Dinamo Kalimotxo saskibaloi taldeko kide diren CARLOS LA HOZek ETA RICHARD ARANZABALek Zaragozan izandako 3A3 *Convelse* txapelketa irabazi zuten.

* GORKA MUJIKAk ETA GORKA REGIlek, jose Luis Morenok zuzentzen zuen "Verano de estrellas" saioko orkestan parte hartu zuten.

**Euskaltegia**
Euskalduna izateak merezi du.
eta
Thte de)va Opt
**Plaza Txikia, 3**
**v 74 13 3z**

TxiRiBoGa **Taberna**
GOSARIAK, PINTXOAK ETA OTARTEKOAK
*Zokiomit eta Ithte* Gu
Plaza merkatua 23-24

**sisfle**
ALEAZIO ARINETAN PREZISIOZKO LANAK
Olaso industrialdeaTel. 74 39 00 ELGOIBAR

***Arrillaga,***
***1NPRIMATEG1A***
DISEINUA -FOTOKONPOSIZIOA- ETIKETAK, CARPETAK ETA KARTELAK, FOILETOAK, KATALOGOAK- TIPOGRAFIA- OFFSET
Trenbide, 13 behea.ELGotBAR. 74 01 87 Fax: 74 27 40

GERTAERAK



## Hirukiak

Aitor, Iker eta Ander Ezenarro Irusta hirukiak jaio ziren abuztuaren 28an. Azken urteetan herrian jaio diren lehen hirukiak dira. Ernesto Ezenarro eta Amaia Irusta, gurasoak, hi izatetik, bost izatera pasa ziren bapatean.

## Atletismo kluba martxan

Ego-Tokiko arduradunek atletismo taldea lagatzeko erabakia hartu zutenean, hainbat lagun elkartu ziren herrian atletismoari bultzada emateko. Trakasle, guraso, teknikari eta kirolariz osatutako taldeak badu izenik. Txankakua Mintxeta Atletismo Taldea, alegia.





## Mauxitxaren 25. urteurrena

Mauxitxa txarangak 25 urte bete zituen Txiki egunean. Urteurren berezi hori ospatzeko hainbat ekintza izan zen San Bartolome jaietan zehar.

GABILONDO
01011
INMOBILIAR1 AGENTZIA
S. Frantzisko, 51. 1D
ELGOIBAR Di 74 44 67
Domingo Irala kalea
BERGARA 76 57 85

gIZPELETal elektrizitatea
- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
- ARGIZTAPENAK
- AUTOMATISMOAK
19Ptdo- 12444
San Frantzisko 51, behea. Tel: 74 12 38

DEBA GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA
ARRASATE 77 77 13 02
BERGARA 76 21 80
ELGOIBAR 74 42 83
LAGUNTZA OFIZIALAK ETXEBIZITZAK EROSTEKO:
DEBA GARA1AREN ZERBITZUAK:
TASAZIOAK, SALEROSKETAN GESTIO OROKORRA, FISKAL AHOLKULARITZA, FINANTZAKETA, (LAGUNTZA OFIZIALAK, KOMUNITATEAK).

414tZ4Zti ehemisstza
SOLARIUMA
I Aurpegi eta gorputz tratamenduak
I Depilazioak hotz eta beroan
I Masajea
San Inazio, 4.v 74 27 25 ELGOIBAR

Elgoibarko "MAQUINARIA LAGUN" enpresak 142 langiletatik 91 kaleratzea erabaki zuen.

GAYAKANPADA izan zen hilaren 3an eta 4ean Aubixan, Euskal Herriko Gay Askapen Mugimenduak antolatuta.

• Kokoek BELDURREZKO KOMIKI ERAKUSKETA antolatu zuen, terrorezko filmeak eta guzti.

• ZAZPI ELGOIBARTAR GOSE GREBAN izan ziren astebetean, hilaren 17tik 23ra. bitartean, euskal preso politikoak burutzen ari ziren gose grebaren aldeko elkartasun moclura.

GEROLAN, langabetuak berkolokatzeko elkarte publiko-prihatua sortu zen. Proiektu honek bi arlo lantzen batetik, lana topatu eta bestetik, enpresa edo negozio propioak sortzeko laguntza eman.

• DEBEMENek bultzatuta, SAN LORENTZO ERREKA, PETO ERREKA, ARISTI ERREKA, HIRU ITURRI ETA PONTXERA GARBITU ZIREN.

• INAZIO BEREZIARTUA MUS1KESKOLAK 10 urte bete ditu. 10 urte clararnatza dantza klasikoa, solfeoa, korala eta instrumentuak irakasten. 1990. urtetik Musika Kontserbatorioa zentru ofizial bilkatu zen eta urtebete beranduago maila ertaina lortu zuen.

# PROTAGONISTAK



**Kike Ormaetxea** izendatu zuten C.D. Elgoibarreko entrenatzaile. Eibartar hau uztailean hasi zen elgoibarko futbol taldea entrenatzen. Honekin batera, zuzendaritza berria ere eratu zuen aipatu kirol. elkarteak.



**Koido Lizarralde** etnografo elgoibartarrak "Ermitas de Elgoibar" izeneko liburuaren aurkezpena egin zuen. Bost urteko lanaren emaitza da aipatu liburua eta bertan, herriko ermiten berri ematen du.

* IÑAKI ETA EDURNE VELA anai arrebek irabazi zuten XX. Perretxiku lehiaketa.

• ALEJANDRO IRIONDOK, C.D. Elgoibar Elkarteak egindako zozketan, milioi bat pezetako saria irabazi zuen.

* AITOR JUARISTI ehiztari gazteak irabazi zuen hilaren 24an San Migel auzoan burutu zen ehiza txapelketa.

* DIEGO GARCIA ETA ALBERTO ISTURRATEGI Elgoibarren izan ziren "Kirola eta euskara" programaren aurkezpenean.

* KOLDO AIERDI ETA AITOR INTXAUSTI izan ziren BARRENek antolaturiko "I. Udako Erretratu Lehiaketa"ko irabazleak. Biek Eandas-etan hi pertsonentzat asteburu :bat irabazi zuten.

TA1BERNA
lagunarteke
afarietarako leku
aproposa
14t4tielelei, 61t!
San Roke auzoa 5. u' 74 25 95

• Eramateko
OILASKCI ERREAK
• Hobe aurrez
eskatuz • ero

IRIONDO
Taberna
gaz was
P. Muguruza 2. ELGOIBAR

GARATE
estankoa
Santa Ana 20 - 74 03 40



## Bilboko Erreminta Makinaren 1 8. bienala

Hilaren 19tik 26ra bitartean Erreminta-Makinaren 18. bienala burutu zen Bilboko erakustazokan. Estatutik eta nazioartetik etorritako enpresek hartu zuten parte eta horien artean. Elgoibarko 20 bat enpresa ikus zitezkeen.

## Alkohol kontsumoaren prebentziorako programa



Eibar, ErMLI21 eta Elgoibarko lidalek alkohol kontsumoaren prebentziorako programa aurkeztu zuten. Elgoibarren gazteen artean dagoen alkohol arazoari aurre egiteko urratsak ezarri zituzten programa honekin.


..01> IPINTZA
Pinturak
PINTURAS

- Pintusv-ct eta pckper'en saimentct
- *Moketak eta* sinfasolnk iculzeTt diftteui
- Zov'ut *eta* horrne apciincit,wal<
- koPtinak *solchi*■ *eta*
- *kortinen erakussl<ef cy Erv'osario knieko* 7cws

Foruen Plaza 4 e 74 04 40

Muruamendiarazt
ELGOIBAR
Pastelak
Tartak
Izozkiak
Bonboiak
Eguberri On!
COZOTE412£
\,Ban Bartolorne 34-35 Tel: 74 03 45

GORBEA
JAILIX1E4
qabOn Zorionisua izan
Santa Ana, 10 - Tel. 74 05 80 ELGOIBAR

- Errotatxok HIESARI BURUZKO INFORMAZIO ETA PREBENTZIO JARDUNALDIAK antolatu zituen.
- Elgoibarko HARRIJASOTZAILEEN ESKOLA MARTXAN hasi zen.
- Hilarenlean jokatu ziren URASANDIKO XV. FUTBITO TXAPELKETAko lehen jardunakliko partiduak.
- LAIOTZ ALDIZKARI LITERARIOAren lehen zenbakia kaleratu zen, Elgoibarko Izarrak argitaratuta.
- Urriaren 23an EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK izan ziren. Elgoibarren EAJ-PNV alderdia nagusitu zen, HB oncloren eta PSE atzetik.
- Elgoibarko INSTITUTUAREN BARNE ARAUDI BERRIA onartu zen hilaren 24ko eta 25eko gurasoen ohizko asanbiadan.
- Urriaren 7an ospatzen dira ERROSARIO KALEKO JAIAK. Aurten, ordea, kale horretan zutabe izan diren bi tabernek ateak itxi Untzon eta Gorostiza tabernek, alegia.
- ELGOIBARKO IZARRA IDAZ LEHIAKETEN deialdia egin zen. Batetik IX. Prosa lehiaketa gai librearekin eta bestetik, XIV. Etxegiña Bertso Paper Lehiaketa, gai librea OHOko ikasleentzat eta bi gai aukeran ertainetakoentzat: "Ze.rk eragiten clit irrifarrea?" eta "Ruanclan ere izango dira gazteak!".

# PROTAGONISTAK



**Neithaliia** elgoihartar gazteak TVEleko "Pasa la vida" saioko lehiaketa batean parte hartu zuen "Cancion española" sailean. Nathaliak eszenatokia bete omen zuen "22 abriles" kanta abesten.



**Mirari Osoro** TVEleko "Ruta Quetzal" lehiaketako irabazleetariko bat izan zen. Horri esker, Mi.rarik bi hilabetetan zehar Quetzal ibilbidea egiteko aukera izan zuen heste 450 gazterekin hatera. Brasil, Argentina, Paraguay eta heste hainhat toki ezagutzeko abentura bizi izan zuen.

*** MIKEL LEGORBURUK** bigarren postua lortu zuen Zaldibiko II. Aurreskulari Txapelketan.

**BERNARDO ATI1AGA** literatur lanen sorreraz aritu zen hilaren 11n Herriko Antzokian.

*** ANTONIO MARKEZ** igeltsero eigoibartarrarekin berbetan izan ginen bere zaletasuna ezagutu asmoz, erlazantza hain zuzen ere. 70 erlauntza ditu, 210.000 erle inguru guztira.


IDAMA

................. ILEAPAINDEGIA .................

)t MISTOA )t MAKILAIAK

X EMAZTEGAI/SENARGAIENTZAKO ORRAZKERAK

...................... ESTET1KA ......................

)t DEPILAZIOA HOTZA ETA BEROA )t SOLARIUMA

X MANIKURAK )t AURPEGI GARBIKETAK

Santa Ana 7. 74 40 26 ELGOIBAR

AMISTAD
Eguberri On!
TABERNA

OtTOPEDIA
,IRRIE7/4
Bidebarrieta 4, Eibar
Tel. 11 84 10



## Nazioarteko IV. Xake trapelketa

Hilaren 20tik 28ra bitartean, Nazioarteko IV. Xake Txapelketa jokatu zen. Aurten l0eko "magistrar kategoria lortu zuen txapetketa honek, Euskal Herriko hirugarrena izanik Bilboko eta Donostiako txapelketen atzetik. Irabazlea, Revnalclo Vera kubarra izan zen.

## Karakatera igoera

Hilaren 18an Karakatera igoera izan zen Urgazi Triathloi Taldeak antolatuta. 11 herritarrek **hartu** zuten parte eta irabazleak, Jose Mari Fernanclezek, 1980. urtean Pedro Etxeberria Mantxillak lortu zuen errekorra desegin zuen Karakateko aldapa gogorrak 31 minutu eta 34 segundutan igo baitzituen.





## 6NEMEN9

6NEMEN9 elgoibartar taldeak Fuskacli Gazteak urtero antolatzen duen maketa lehiaketa irabazi zuen. Asier Etxanizek, Alherto Gonzalezek, Martzelo Mendizabalek, Josu Iriondok eta Mikel Cornejok osatzen clute taldea. Sari bezala, 600.000 pta eta *Top* cliskotekan *Sorotan Belerekin* kontzertua jaso zuten.


RA
EUSKADIKO SINDIKATUA
Jaietan eta lanean zuekin gaude.
Gabon Zoriontsuak eta Urte Berri On!

JOSE ANTONIO ileapaindegia
•Hiesa eta hepatitisaren kontrako tresneriaz horniturik.
•Ilearen zainketarako tratamenduak.
•"KERASTASE"k aholkatutako ileapaindegia.
*ZATOZ GUREGANA !*
Errosario 30. Tel. 74 14 92. ELGOIBAR

Maria Urizar ileapaindegi mixtoa
qAPON 201ONTSIMIK, PfISR fT2A2UE!
Errosario 9-lezk.r1 74 44 89 ELGOIBAR

- UdaI Kultur zerbitzuak antolatutako **LUDOTEKA** hilaren 6an ireki zen berriro.

- **"KIROLA EUSKARAZ"** prograrnaren barruan sartzen clen patin ikastaroan 40 pertsonek hartu zuten parte.

- Olaizaga kiroldegiak antolatutako **TRIKITIKA IKASTAROAK 100** lagun hildu zituen.

- **SOS BALKANES** sortu zen Parrokiako Konfirrnazio taldetik.

- **SUKALDARITZA BEJETARIANOARI BURUZKO LKASTAROA** antolatu zuen Elgoibarko Izarrak. Guztira 32 pertsonak hartu zuten parte.

- **AUZOTARREK ELKARLANEAN** hainbat gauza egin zituzten, hala nola, San Migel, Urruzuno eta San Rokeko elkarteak. Azaroaren 12an San Roke auzoko elkartearen inaugurazioa izan zen.

- Elgoibarko **ANTIMMAK AZOKA PLAZAN ITXITA** egon ziren Estatuko gartzeletan gose greban dauden 50 intsumisoekin elkartasuna adierazteko.

- Hilaren 26an Loiola irratiak **"HERRIZ HERRI, ELGOIBAR GAUR"** irratsaio berezia eskaini zuen Udaletxeko Areto Nagusitik.

7:7



**Mari Cruz Rarnal,** dardoetan Espainiako txapeldun atera zen 1992an Geronan, eta Chicagon ospatu zen munduko txapelketan hirugarrena. Mari Cruzek Zurnaian taberna bat zeukan eta han hasi zen jokatzen, senarrak irakatsita.



**Iñaki Odriozolak** Central Hispanok antolatzen duen "Imagina ezazu Euskadi" saria irabazi zuen poesia euskaraz atalean. Iñakiren lanak "Hausnarketa hezeak" izena dauka eta poesia erotikoa omen da.

* **JOSE FELIX IGLESIAS ETA PILAR ARRIOLA** hitaren 12an korritu zen Behobia-Donostia lasterketan protagonistak izan ziren. 40 elgoibartarrek hartu zuten parte bertan. Iritsi zen lehen elgoibartarra jose Felix iglesias izan zen 1:15:20ko denbora egin zuelarik. Lehenengo neska, berriz, M.Pilar Arriola izan zen 1:38:48ko denborarekin.

* **EGOITZ MORA** Gipuzkoako Haurren I. Judo jokuetan txapelduna izan zen.

* **JOSE MARIA FERNANDEZ SUSOK** 31 minutu eta 34 segundutan egin zuen Plaza Haunditik Karakate puntarainoko ibilbidea.

* **JOSEBA ELIZEGI,** minbiziaz jota dagoen Asteasuko gaztearen tratamendua ordaintzeko dirua jaso asmoz, txanpon ilera bat antolatu zuen **GURUTZE GORRIAK** azaroaren 13an. 110.495 pta bildu ziren.












## Hiesaren nazioarteko eguna

HIESaren nazioarteko eguna ospatu zen abenduaren 1ean. Gaisolasun horren adierazgarri den lazo gorriak eta izara zuriak agertu ziren zintzilikaturik etxeetako balkoietan eta hainbat dendatan. Errotatxok m.ahai informatiboak jarri zituen egun osoan zehar eta arratsaldean "Bada garaia, orain eta kitto¯ lemapean kontzentrazio bat burutu zuten San Frantzisko iturri parean,

## Jubilatuen Astea



jubilatuen Astea antolatu zuen Zaharren Biltokiak hilaren 12an hasi eta 18ra bitartean. Urtero bezala, aste berezi hau ospatzeko hainbat ekitaldi izan zituzten. Garrantzitsuena bazkari omenaldia izan zen, hilaren 14an. Bertan, 1994an urrezko eztaiak bete dituzten bikoteak omendu zituzten bai eta 80 urtetik gorakoak ere. Horrez gain, erakusketak, hitzaldiak, Itxaropena abesbatzaren eta musikeskolaren kontzertuak, Dakintaren txisteak eta Gelatxoren eskutik dantzaldia izan ziren, besteak beste.

LOS HERMINIOS
TABERNA

bete4 olsho ttuk4tu
eta leittei4
kotteto

Upaitza Zaharra kalea, 4 % 74 03 87

IÑAKI BODEGILLA

- PINTXOAK (hotzak et roak)
- KAZUELATXOAK
* OGITARTEKOAK
- AFARI MERKEAK

Aurrez eskatuz gero hobe.



OptetcY fia4a,
qao,t f,c,i al

TRENBIDE KALEA, 1 9. ELGOIBA

• Elgoibarko **PRESO POLITIKOEK** gartzelan 10 une daramatela salatzeko hainbat ekintza burutu zituzten Gestorek: hitzaldiak, zinea, trikitixa eta bertso saioa.

Elgoibarko **SOS BALKANESEK DIRU BILKETA** bat egin zuen abenduaren 3an eta 4ean. Guztira 150.000 pta jaso zituzten eta elint horrekin zapata pareak erosi zituzten Bosniara bidaltzeko.

• **AMETS BEROAK DANTZA IKUSKIZUNA** aurkeztu zuen **ARTESZENAK** Herriko Antzokian hilaren 15ean. Ikuskizuna hiru saioz osatua clago eta horietako bat Josu Mujika elgoibartarraren koreografia cla.

Elgoibarko **I BOLO TXAPELKETA** antolatu zen. Lehen tiraldia hilaren 17an izan zen San Lorentzon. Hurrengoak San Migelen, San Roken eta, azkena, San Peclron.

**MORKAIKO MENDIZALE ELKARTEAK** antolatuta, hilaren 18an irteent izan zen Morkaiko mendira jaiotza ipini asmoz. urtero Gabon garaian ohi denez.

**GABONETAKO JAIOTZA LEHIAKETA** antolatu zuen parrokiak. elgoibarko haur guztiei zuzendurik.

Hilaren 20an **PARROMAKO JAIOTZA** inauguratu zen.

• I-Iilaren 3an **INAZIO BEREZIARTUA MUSIKESKOLAKO** akordeoi orkestak **CANTABRIAKO III. AKORDEOI TXAPELKETA NAZIONALEAN** lehen saria jaso zuen gorengo kategorian Willi Munch-en *Mhzi-Express* obrarekin.

## PRO r\(7 7 5\



**Oientzero** menditik etorriko zaigu aurten ere hilaren 24an, haurren gutunak jaso eta opariak banatzeko. Goiz osoan zehar kalejira zeharkatuko ditu kaleak, Elgoibarko Izarrak antolatuta.



**German Meabehasterretxea** bertsolariak irabazi du aurtengo Nagusien XIV. Ety.egifta Benso Paper Lehiaketa. "Edozer esateko lizentzia eman didate" gaia jarrita, zortzi bertso egin ditu Germanek "Barne Mintzoa" izenburupean bilduta.

* **MAITE REMENTERIA** BARRENeko maketatzaileak, Tolosako Galtzaundi herri aldizkariak antolatutako maketazio lehiaketa irabazi zuen. 150.000 ptako saria jaso zuen eta aipatu aldizkariaren diseinu berria egin behar du.

* **LORENTXO ALTUBEREN** eskutik Euskal Herriko soinu tresnen erakusketa izan zen hilaren 9tik 18ra.

* **PATXI ARRIOLAK** Gipuzkoako Oilagorren txape1ketan lehen postua lortu zuen.

* **MANU IZAGIRREK ETA IÑIGO ASTIGARRAGAK** Lekeitioko bideo lehiaketa irabazi zuten Idiazabal gaztaren prozesu industrialari buruzko dokumental batekin.

* **IKER IRIONDO** plaentxiarrak sukaldaritza bejetarianoari buruzko ikastaroa eman zuen. Elgoibarko Izarrak antolatuta guztira 32 pertsonek parte hartu zuten sukaldaritza bejetarianoari buruzko ezagupenak izan asmoz.


jilari Jose
GOZO-TOKIX
San Inazio, 1. 74 16 93
gallo rievrizutedwal eta ZbIte deivu Opt/

kartutxo
BERTAKO JAKIAK
Ondo pasa Gabonak!
okindegia
San Frantzisko 33 ☎ 74 31 67

01.(c(o ,aga ),(ziavrai,/
taberna
rmuaran-bide. Tel 74 26 33. ELGOIBA

www, Kide
~1LEAPAINDEGIA
90,~44 eta V.,tte
ett,a opd
☎ 74 00 69
San Frantzisko, 40 - 3 - B

# Bertso Jaialdia

## ELGOiBARREN

**ANDONI EGAÑA**
**SEBASTIAN LIZASO**
**GERMAN MEABEBASTERRETXEA**
**JOXE AGIRRE**
**JOKIN SOROZABAL**
**MILLAN TELLERIA**



**Abenduaren 30ean**
**KIROLDEGIAN**
**10,30etan**

ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA

ELGOIBARKO UDALA
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

# Marieb Etxahe

## "Classy" paperdendakoa



*Nondik datorkio izena?**
Ingelesetik hartutako hitz bat da.
- **Zenbat denbora daramazu dendan?**
Urtebete eta hilebete bat, gutxi gora behera.
- **Zer da gehien saltzen dena?**
Batez ere eskolako materialea.
- **Zeintzuk dira erosle onenak?**
Gizonak.
- **Zein urtarotan saltzen da gehiago?**
I Urrian, kurtso haseran eta Gabonetan.
- **Zinea ala bideoa?** 1 Zinea.
- **Argazkiak koloretan ala txuri beltzean?**
OBiak, pertsonenak txuri-beltzean eta bestelakoak koloretan.
- **Erretzailea?**
Astebete daramat erre gabe, kontuan izanik **13** urte nituenean erretzen hasi nintzela.
- **Mutilak, rubioak ala morenoak?** 1 Morenoak.
- **Idatzi al dizute inoiz amodiozko gutunik?** 1 Ez nik, ez eta niri ere.
- **Egunkaria ala astekaria? bEgunkaria.**
- **Musika talde bat?** Bruce Springsteen.
- **Gustatzen zaizkizu Gabonak?**
Orian arte bai, baina aurten ez nago oso motibatua, dena den, gustatzen zaizkit.
- **Non eta norekin igarotzen dituzu Gabonak?**
Gabon gaua aitaren familiarekin bere baserrian eta Gabon Zahar gaua nere amaren familiarekin.
- **Idazten duzu Gabonetako postalik? I Bai.**
- **Zer eskatuko zenioke Olentzerori?** 1 Pakea.
- **Krisiaren eraginik jasan duzu?**
Denda hartu nuenerako krisia zegoen, beraz, nik neuk ez dut asko nabaritu. Gainera haseran erosle gutxiago nituen ezezaguna nintzelako baina, poliki poliki, erosleak gehitzen doaz.
- **Zein komertzio falta zaio Elgoibarri?**
Arropa dendak, baina norrnaIa da gehiago ez egotea. Jendeak hiri handietara joateko joera dauka, aukera gehiago dagoelako.

MAITE IRIONDO

## GABONAK

**DOINUA:**
Gaueko Izar

Urte guztian egun hauen zain
asko gerade egonak
sendi giroan igaro nahian
festa alai eta onak.
Elkar bildurik zahar ta gazte
bilobak, aiton-amonak,
elgoibartarrak ahal den neurria
ongi pasatu Gabonak.

Gabon jaietan guk jaiotza bat
ospatzen dugun ezkero,
biak batera etorri dira
Barren eta Olentzero.
Aurrerantzean era honetan
gertatu bedi urtero,
Iuzaro Barren irakurtzea
askok baitugu espero.



IRATI AGIRREAZALDEGI

Yudego
LURRINDEGIA
San Frantzisko, 2. Tel. 74 02 99




TINDATEGIA
Zorionak
Urte Berri On!
Foruen Enparantza 4
Tel. 74 00 91

El A

## Masaia ikastaroa

Olaizaga Kiroldegiak masaia ikastaroa antolatu du urtarriletik maiatzera bitartean. Ikastaroa larunbatetan izango da. Izena emateko Kiroldegira deitu (74 13 61). Bestetik, urtarrilaren 7tik 22ra bitartean Kiroldegiko ateak zabalik izango dituzte azken sei urteotan bazkide izan diren guztiek.

## lbaikoek ezin hobeto hasi dute denboraldia

lbai gimnasioko judokek emaitza oso onak lortu zituzten Andoainen izandako Gabonetako Judo Txapelketan. Gorka Garatek urrezko domina eskuratu zuen eta Carlos Angulok, berriz, brontzezkoa. Lehengoak lau borrokaldi irabazi behar izan zituen 55 kilora bitarteko mailan. Angulo, 65 kilo gorako mailan aritu zen eta esperientzia faltagatik ez zuen domina garrantiztsuagoa lortu. Bi hauez gain, Zipri Migalesek eta Ganix Ostolazak ere hartu zuten parte.

## Emaitza onak Mintxeta atletismo taldean

Pasa den astebukaeran Oñatin izandako eskolarteko krosean taldekako lehen postua lortu zuen Mintxeta Atletismo taldeak. Egoitz Martinez ere lehena izan zen alebinetan, Mireia Huidobro ere hirugarren alebinetan eta Gorka Sanchez hirugarren infantiletan. Oriatin ezezik, Plaentxiko kros herrikoian ere parte hartu zuten Mintxeta taldeko benjaminek. Gaurregun, Mintxeta Atletismo taldeak 50 korrikalari ditu.

## Luis V arl Arakistain:

## "Trabesiako eskian arriskua asumitu egin behar da"



**1 Noiztik eskiaren munduan?**

- Futbola laga nuenetik edo, duela 24 bat urte. Haseran alpinoan eta gero, mendian ere ibiltzen naizenez, neguan mendian ibiltzeko eskia baliagarri izan zitekeela ikusi nuen. Hortik trabesiako eskiarekin hasi nintzen Donostiako talde batekin.

**1 Zer da trabesiako eskia?**

- Bueno, nik trabesiako eskiari mendiko eskia deitzen diot. Besteekin konparatuz nahiko zaila da. Alpinoa ondo menperatu behar da eta mendian oztopo askorekin topa zaitezke. Txarrena kostra egindako elurra izaten da. Eskia lurperatu egiten zaizu eta jiroak egitea asko kostatzen da. Horregatik eskiaren teknikak ondo menperatu behar dira, eta ikastaroak egin.

**1 Zer nollako trabesiak egin dituzu?** - Donostiako taldearekin sei bat eguneko iraupenekoak, eskiatzen egunean sei edo bederatzi ordu. Batzuetan refujioetan eta beste batzuetan mendian galduta dauden txaboletan lo eginez. Kasu hauetan materialea soinean eraman behar duzu.

**1 Zein trabesia egin dituzu?**

- Alpe frantsesean Alto Queyras eta Alta Maurienne, Austrian Valle de Silvretta eta Valle de Otztal.

**Nolako ekipamendua erarnaten duzue?** – Aurrera egiteko eskietan foka azala jartzen dugu, jeisteko kendu egiten da, eta elurra gogorra denean eskietan kutxilak jartzen dira. Kirol oso konpletua da, asko entrenatu behar da, fisikoki sendo egon. Gainera, ezagutza sakonak eduki behar dira; elurra tenperaturarekin eta hezetasunarekin etengabe aldatzen da. Kartografia ezagutu behar da, orientazioa eduki, eta arriskua asumituta. Ia bakarrik zaude, aldapak handiagoak dira, elurra erori berri dago, zuloak, amildegiak... daude. "Busca"k eramaten ditugu abalantxarik balego eta orain telefonoak erabiltzert hasi gara.

**1 Aurten zer asmo?** Iaz belaunean lesioa izan nuen eta orain hasi naiz zerbait egiten. Asmoa Andorrako bira egitea da mendiz eta abuztuan Cervinora igo nahi dugu Italiako aldetik. Eta hurrengo urtean, Aconeagura.

**1 Morkaikon eta Federazioan ere ibili zara.** - Morkaikon hainbat urtetan egon naiz eta 86tik Euskal Federazioaren batzorde teknikoan nago.

**Zein mendi igo dituzu?** - Pico Comunismora saiatu ginen, Atlas-ak, Alpeetan Mont-Blanc eta beste mordo bat, Perun Pisco eta Huascaran eta Ecuadorren Chimborazo eta Cotopaxi.

- **Adina: 47**
- **Mendia neguan ala udan? Neguan.**
- **Eskiatzeko Ieku bat: Saas Fee.**
- **Pasiatzeko leku bat: Euskal Herriko edozein mendi.**

ELEKTRONIKA
121I113E
ELEKTRAGAILUAK
Ubitarte 3 - Tei. 74 14 87 - ELGOIBAR

usua
KAFETEGIA

Sanfa Ana, 6. Ter. 74 25 20

PINTXO HOTZAK BEROAK
ETA KAZUELAD1OAK
Santa Klara -22
Tr 74 26 32




# KI41 INGTON

**Eskola honetan ingelesa, frantzesa eta alemana irakasten dugunon izenean.**

Moss

Zoitioittot44k ilatto

eta

ititte 6st !



GIPUZKOAKO HIZKUNTZ IRAKASLE
ELKARTEKO BAZKIDE

P. Muguruza 8. ELGOIBAR 121 **74 02 36**



*Aizu, ideia bat. Gabon hauetan zatoz MULTIOPTICASera. Oparirik onenak clitugu. Orijinala izan nahi baduzu, bertan aurkituko duzu bila zabiltzana. Betaurreko bildumarik onenak ezezik, oparirik berezienak ere bai.*
*Barometroak, mikroskopioak, prismatikoak, eguzkitarako betaurrekoak, chseinudun monturak,.._ eta askoz gauza gehiago. Ondo begiratuta, ideia bikaina da.*

MultiOpticas opari bat da

UZURI OPTIKA

San Frantzisko, 21 - ELGO

*Elgoibarko PSE-EE k*
*Ga.bonjai zoriontsuak opa clizkizue*
*herritar guztioi.*
*Urtea ondo bukatu*
*eta berria hobeto hasi!!*

PSOE

IU1111FORM



**JUARISTI Aroztegia**

Egur-aluminiozko **UNIFORM** leihoak, egurrezko leihoen edertasun eta aluminiozkoen teknika batzen ditu.

- Ez dauka mantenu beharrik
- Haizea eta urarentzat isolatua
- Kolore efektu ikusgarriak
- Betirako leihoak

Zorionak!

Arotz, kontratista eta etxe berrikuntzetarako mundiala.

BULEGOA:
Ubitatrte, 2 behea. Tel.: 74 13 33

LANTEGIA:
Santa Ana, 16. Tel.: 74 29 94

# Kuadrilak Gabon lehilarake prest

Udal Kirol Zerbitzuak antolatuta, IV. Gabonetako Kuadrilen arteko Txapelketa burutuko da hil honen 26a eta 31 bitartean. Egun hauetan izena eman duten kuadrilek beraien indarrak neurtu beharko dituzte bost kirol ezberdinetan.



Kronoeskalada burutu beharko den kiroletariko bat da.

Txapelketan parte hartzeko baldintza bakarra, gutxienez bospasei laguneko taldea osatzea eta antolakuntzak ezarritako bost kiroletan aritzea da. Talde batek kirolen batean parte hartuko ez balu txapelketaz kanpo geratuko litzateke automatikoki. Iaz 26 talde izan ziren, 348 pertsona guztira. Lehen aldiz nesken kuadrila batek eman zuen izena eta kuadrila deportiboena izateagatik saria jaso zuen gainera.

## Puntuaketa zabalagoa

Aurten kuadrilek eskatuta, sailkapeneko lehen 16 taldeen puntuazioa jakin ahal izango da. Orain arte lehen lauek baino ez zituzten puntuak jasotzen. Orain, final zortzirenetara iristen direnei eta final laurden eta erdietarako sailkatzen direnei puntuak emango zaizkie. Saskibaloia, futbitoa eta pala, kanporaketa sistema bidez jokatuko dira. Burutu beharko diren beste bi kiroIak kronoeskalada eta krosa kaleetan zehar dira. Iaz bezala, Kiroldegian jokatzen diren partiduak goizaldera arte Iuzatuko dira; hortaz, saltsa polita sor daiteke gaueko partiduetan. Finalak eta sari banaketa hilaren 31n izango dira Kiroldegian.

M 4M. 111.1111 "Z" Aln■

| EGUNA | K1ROLA | LEKUA | HASERA ORDUA |
|---|---|---|---|
| Ahenduak 26 | Saskibaloia | Kiroldegia | 16,00 |
| Abenduak 27 | Futbitoa | Kiroldegia | 16,00 |
| | Pala | Ikastola | 16,00 |
| Abenduak 28 | Futbitoa | Kiroldegia | 16,00 |
| | Saskibaloia | Kiroldegia | 16,00 |
| Ahenduak 29 | Krosa | Plaza Handia | 19,00 |
| Abenduak 30 | Kronoeskalada | Muxi Kirolak | 19,00 |
| Abenduak 31 | Saskibaloia | Kiroldegia | 16,30 |
| | Futbitoa | Kiroldegia | 17,30 |

## Txankakua argazki rallya:

Berrikuntza modura erretratu rallya burutuko da, txapelketa gai modura jarrita. Kamara eskuetan ahalik eta instantanearik bitxienak eta politenak ateratzen saiatu beharko dira parte hartu nahi duten zaletu guztiak. Argazkiak urtarrilaren 14an jasoko dira beranduenez Kultur Etxean, goizeko lletatik lera bitartean. Epaimahaiaren erabakia urtarrilaren 16an jakinaraziko da eta urtarrilaren 27tik otsailaren 2ra bitartean Ongarrik antolatuta, erakusketa egingo da Kultur Etxean, parte hartu duten argazki guztiekin. Hiru lehen sailkatuen-tzat sariak egongo dira, lehenarentzat 25.000 pta, 15.000 bigarrenarentzat eta 10.000 hirugarrenarentzat.

ik■

NOVAK C.B.

HEKMAIIVITUIX

C. BALLIBAR. SAN ANTOLIN S/N
TEL. 74 37 02 FAXA: 74 39 01
20870 ELGOIBAR GIPUZKOA

Zorionak eta Eguberri On!

XABIER
ILEAPAINDEGIA
51(eaU
e9~ eta cvldr,ca,
Stin Bartoiome 13, Tel. 74 19 97

disco

**BERUNIK GABEKO GASOLINA • MICHELIN AGENTZIA • GURPIL NEURKETA**
**PRESIOZKO GARBIKETA • GARBIKETA NEUMATIKOA • ASPIRAGAILUA**

# RIZOLA (5301.19: 1

*ZopfaijaS U''e Berri On!*




fficver

Ibartarte kalea 3 - 167 Postakutxa
Tel. (943) 74 26 69 74 44 38 - FAXA (943) 74 30 77
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)




- ELETRONIKA INDUSTRIALA
- [INFORMATIKA INDUSTRIALA
- PROZESUEN AUTOMATIZAZIOA
- INGENIERITZA ETA FABRIKAZIOA

**MASERek Gabon zoriontsuak opa dizkizue elgoibartar guztioi. Eta ea 1995a urte on bat izaten den guztil@w12at:**

# German Meabebasterrtheak Irabarl du aurtengo XIV. Etxegiña Bertso Paper Lehiaketa



• Argazkian, lehiaketako sari banaketan elkartu zen lagun kuadrila.

Joan den ostiralean, hilak 16, egin zen Nagusien XIV, Etxegiña Bertso Paper Lehiaketaren sari banaketa. Ekitaldia Aubixan izan zen, lagunarteko afari baten ostean. Aurtengo edizioan 12 pertsonek hartu dute parte. Bi gai zeuden aukeran; bata, "Edozer esateko lizentzia eman didate" eta bestea, "zer da animaliengandik bereizten gaituena?". Mikel Mendizabal bertsoIaria izan da epaimahaia eta honen erabakiz, German Meabebasterretxeak jaso du lehen saria, 30.000 pta eta txapela. Germanek "Edozer esateko lizentzia eman didate" gaia hautatu eta "Barne mintzoa" izenburuko bertso sorta aurkeztu zuen. Bigarren saria Jon Peli Uriguenek eskuratu du, 20.000 pta, hain zuzen ere. Honek, "Zer da animaliengandik bereizten gaituena" izan du mintzagai. Hirugarren saria bi pertsonen artean banatu da: Abel Irizar eta Asier Etxaniz. Hauek, 5.000 pta jasoko dituzte bakoitzak "Edozer esateko lizentzia eman didate" gaiaren inguruan burutu dituzten bertsoei esker.

**IRABAZLEAREN PARE BAT BERTSO:**

*Nere gorputzan inaizter hihurtu*
*nahiz haseran ugazaba*
*sinetsi ezin duenik bada*
*hara zenbait zertzelada.*
*Nahi dena esaten izango dut*
*baina esan nahi dena hara:*
*etsipenaren balada,*
*zapalduan matxinada,*
*presoaren eskapada,*
*garrasi isil bat ohiu kannas hat*
*entzun ezin den zaunkada*
*nuttu denaren bame nantzoa*
*hertsoz nahi nuke islada* **(BIS)**

*"Gehiago ez dek hitzik egingo"*
*hura bai une zorrotza*
*istripu batek ximendu zuen*
*erne berri zen larrosa.*
*Lore hezela munduratua*
*orain gaztaina morkotsa*
*atsegin zena zipotza*
*argiu zena kdotza*
*goxoa zena nangotsa.*
*Betiko galdu gizartearekin*
*lotzen ninduen ahotsa,*
*zein gogorra den derrigorrezko*
*isiltasunan morrontza.* (BIS)







p414 44tot,
i4i4k!
karflila120

San Franzisko 12-14, TeL 74 05 49

Bakearen uso
faitsu denen aurka
Justizian dago Herrien oreka
Askatasunari ezin begi uka
Herri honek bere bidea badauka
AMNISTIA, ASKATASUNA ETA INDEPENDENTZIA.

ELGOIBARKO HERRI BATASUNA

## NIRVANA
"Unplugged in New York"




Askok pentsatuko dute diska hau ez zela editatu behar izango eta disketxeak dirua ateratzeko kaleratu duela (adibiderik argiena Queen tafdea dugu), baina ukatu ezin daitekeena zera da, disko on baten aurrean gaude]a.

Kurt Cobain, taldearen buru eta abeslariaren heriotza baino sei hilabete lehenago MTV katearentzat /(Music Television) grabatuta dago. Diska osatzen duten hamalau abestiren artetik, sei bertsioak dira, (Jesus want me for a sunbeam"-The Vaselines, "The man who sold the world"-David Bowie, "Where did you sleep last night"-Leadbelly, "Plateau", "Lake of fire"-Meats Puppets) eta gainontzeko zortziak aurreko diskoetan argitaratutakoak dira ("About a girl"-Bleach, "Come as you are", "Polly", "On a plain", "Something in the way"- Nevermind eta "Pennyroyal tea", "Afl apologies", "Pumb"-In Utero.

"About a girl" abestiarekin hasi eta "Where did you sleep last night" kantarekin bukatu arte, orain arte ezezaguna zitzaigun arlo bat ezagutzeko aukera eskaintzen digu diskak. la ordubete irauten duen soinuzko set honekin entzulego ezberdin batengana hurbildu dira, askok beraien burua saldu dutela uste arren. Azken finean, Gabonetarako opari ezin hobea izan daitekeela uste dut.

Diskografia: Bleach, Nevermind, Incesticide, ln utero.

**JULIAN SEGUNDO**
(Erredakzioan itzulia)

# GABONAK Au6iEGTE K

## Zer dira Gabonak zuretzat? Fededuna al zara? Gabon Gaua ala Gabon Zaharra? Olentzero ala erregeak? 1995erako asmorik?



**JON GARATE 14 urte**
- Gehienbat oporrak eta familixiakin ondo pasatzeko egunak. Egun alaiak dira.
- Bai, elizara ez naiz asko juten baina sinisten dot.
- Gabon Zaharra nahixao dot ze Etxeberrira juten gera eta han librio ibiltzen naiz, lagunekin, familixan ere gehixao elkartzen gera...
- Olentzero.
- Nota hobiak etaratzia eta, amak esaten dian bezela, formalaua izatia.

**MAIDER 15 urte**



- Pakia, familixiakin egoteko egunak... Nik kanpora juteko aprobetxatzen dot, aurten eskiatzera edo. Halere, 24an elkartzen gera familixia.
- Ez, ni ez.
- Gabon Zaharra ze anbiente gehixao egoten da. Ganera, aurten ixa ziur lagunekin urtengo naizela.
- Olentzerua etxera eta erregiak amamanera.
- Nik ez dot ezer behar. Besteen eskakizunak betetzia eskatzen dot.



**AMAIA EPELDE 15 urte**

Gaztia naizenez lagunekin urtetzeko, familiakin egoteko egunak dira. Ideala, elurra egiten dabanian izaten da.
- Bai, sinisten dot.

Gabon Zaharra, ze jende gehixao elkartzen gera eta girua hobia izaten da, ondo jan, karta jokua.
- Erregiak.
- Mehetzia urteroko asmua da baina beti nago berdin. Bestela, 1994a bezain ona bada, konforme.

**KOLDO LARTAIN** affr011ifr



- Guai pasatzeko egunak, familixiakin eta lagunekin egoteko egunak. Girua ere gustatzen jata.
- Bai, elizara ere juten naiz.
- Gabon Zaharra nahixao dot, anbiente gehixao egoten da kalian, etxian... Arrebak kalera urtetzen dira eta nik ere hala egingo dot urte batzuk barru.
- Erregiak.
- Espezialik ezer ez, danak bezela, onaua izango n aizela.

# IKASTOLA

## 2 urtetik 16ra bitarteko Hezkuntz Proiektua



**1 Hezkuntza serio eta efikaza oinarri hauen gainean:**

- *Giza baloreak.*
- *Ikasleei egoera berriak gainditzeko beren estrategiak sortzen irakastea.*

**1 "Euskaraz Bizi"ren barruan: Ikasi eta erabill!**

**1 Ingelera 4 urtetatik nazioarteko adituen eskutik.**

**1 Asmoak betetzen efikazak izateko baliabideak:**

- *4,000 m2 kirol eta jolas leku.*
- *Irakasle guztiak euskaldunak, % 10a ingeleradunak.*
- *Egun guztiko psikologo orientatzallea.*
- *Musika 6 urtetatik 14ra arte.*

**Urte Berri On!**

TXANKAKUA



Gabon garaian jaso ezazu
besarkada bat laguna
gure artean nabari dadin
eguneroko jarduna

*Zorionak eta Urte Berri On*
*elgoibartar guztioi!!*

ERREMINTA
MAKINA
INSTITUTUA

INDUSTRY
LANGUAGE
SERVICES

## IKASTARO TRINKOAK

**ALEMANA:** Maila ertaina
**INGELESA:** First Certificate maila
**IRAUPENA:** 95 - I - 18 / 95 - III - 30 (84 ordu)

**HIZKUNTZAK:**
Alemana, Frantzesa, Ingelesa

**Arratsaldeetako ikastaroekin jarraitzen dugu.**
**(Mailak: Oinarrizkoa, ertaina, First Certificate, aurreratua / C.A.E.)**

*Zothoi*
*&ta at4to gedln"*

INFORMAZIOA ETA
IMH HIZKUNTZAK
SAN ROKE AUZOA, 1
20870 ELGOIBAR
TEL. 74 41 32 FAX 74 41 53

## Garajeak

GARAJE BAT saltzen dut. ganbara eta guzti "Anatak" edifizioan. Prezio onean.
17 74 17 60 / 74 34 01 Iiaki

GARAJE ITXI BAT alokatzen dut Santa Ana 46 zenbakian.
Tr 74 13 67

## Salerosketak

VOLKSWAGEN GOLF GTI 16V. (SS-AF) SALTZEN DUT. Prezio interesgarria.
17 74 42 59 Jose Mari

"Silver Cross" markako KOTXE KAPOTA BAT saltzen dut. Oso ondo dago.
74 11 28 Juani
Tr 74 20 77 Gloria

NINTENDO KONSOLA ETA 6 JOKU saltzen ditut. Prezio onean.
17 74 13 97
8,30etatik aurrera

Estilo Castellano-dun LOGELA BAT saltzen dut. Ohea, armarioa, bi mahaitxo eta tokadorea ispiluarekin.
Ti 74 17 60 / 74 34 01 Itlaki

Desmontatu daitezkeen APAL METALIKOAK saltzen dira. Esmera onean.
tr 74 01 75

XT 600 YAMAHA TRAIL motor bat salgai. Matrikula, SS-X
tr 74 10 35

Ordenadorerako MAHAI BAT eta balkoirako ZAPATERO ARMARIO BAT saltzen ditut. Berri berriak. Fondoa 45 zrn., Altuera 1,40 tn. eta zabalera tnetro bat.
tr 74 34 86

R-21 TX-E kotxe hat salgai. Matrikula, SS-z.
1:1" 74 10 35

EKONOMIKA BAT saltzen da. Lahe eta guzti. Berria.
Z' 74 09 86
(arratsaldez 8,30etatik aurrera.)

GIMNASIA EGITEKO BANKO BAT SALTZEN dut. Abdominalak, arrauna, e.a. egiteko balio du.
1:1' 74 29 52
Gauez 8-10etara

Bi izarreko FRIGORIFIKO BAT saltzen da. 3 urte ditu. 15.000 pta.
Tx 74 19 57

GARAJE ITXI BAT dut salgai Olaso poligonoan. 14m2 eta 3,5m altuera. 1.100.000 pta.
17 65 23 69 Josetxo

## Lana

OHOko irakasle eta lngenieritza tituloak ditut eta PARTIKULARRAK EMATEN DITUT.
'2:r 74 01 48 Alazne

Ingelesa ikasi nahi duen NESKA BAT behar dugu haurrak zaintzeko LONDRESEN ELGOIBARKO FAMILIA hatean. Apiriletik aurrera
'Er 74 08 17

PEDAGOGIAN lizentziatuak eta 6 urteko esperientziarekin, OHO eta REMeko klase partikularak ematen ditu cuskaraz zein gazteleraz. Maite.
1r 74 39 24

PSIKOLOGIAN LIZENTZIATUA naiz eta OHOko klaseak ematen ditut. Entaitza onak
tr 74 14 14

HAURRAK ZEIN NAGUSIAK ZAINDUKO NITUZKE. Etxeko lanak egiteko ere prest nago.
1:r 74 21 88 Pilar

IDAZKARIA eta ENPRESARIALESEN diplornatua, informatika ezagupenekin edozein ofizina lan egiteko prest dago salmenta ezik.
1r 74 39 89 (Mari Karmen)

Neska euskaldunak ETXEKO LANAK egin edota HAURRAK ZAINDUKO lituzke.
13 10 06 23

## k

P. Muguruza eta King-kong artean BELARRITAKO BAT GALDU NUEN. Perla urdin bat du.
Tr 76 02 33

BELARRITAKO BAT galdu nuen abenduaren 8an. Lazo forma dauka eta erdian perla zuri bat du.
Tr 74 19 71

Perla urdinak dituen PULTSERA BAT galdu dut. Aurkitzen duena saritzeko prest nago.
74 05 74 Maite

CARITASek erropak gordetzeko ARMARIO BAT behar du.
Ir 74 12 57
1r 74 15 09

ibai-ondo
Erretegia
Giza eskubideen Plaza

imanole
GOZOTEGIA
San Frantzisko 44, 74 41 37

JOSE ANGEL ZABALA
URDAITEGIA
Berezitasunak:
-Bakilaua
-Txerrikiak
94~1,41
Merkatu Plaza 33-34

ecenarro
- Earruko erropak
- Umeentzat erropak
5cvaciuct% eta,
?/br.te Opti!
San Frantzisko 10,
Tel,: 74 26 19

MIREN
arraindegia

Santa Ana
74 34 49
ELGOIBAR

## 23 OSTIRALA

**19,00 BARREN SARIEN EKITALDIA**

**Tartean Amaia Zubiriaren kantaldia**

✓ Herriko Antzokian

**22,15 ZINEA**

**"Volar por los aires"**

## 24 LARUNBATA

**11,00 OLENTZERO REN KALEJIRA**

If Irteera Maalatik

Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

**15,30 OLENTZERO**

✓ Irteera Plaza Handitik

Antolatzailea: Gestorak

**19,00 BANDAREN GABONETAKO KALEJIRA**

## IGANDEA

**12,00.14,00 ERAKUSKETA**

Gaia: Gosea, garapenaren aurpegi izkutua

lKultur Etxean

Antolatzailea: Mugen Gainetik

**13,00 PARROKIKO ABESBATZAREN KONTZERTUA**

/Elizako Arkupeetan

**19,30.22,15 ZINEA**

**"Volar por los aires"**

## 1 ASTELEHENA

**22,15 ZINEA**

**"Volar por los aires"**

## 27 ASTEARTEA

**18,00 HITZALDIA**

**Gaia: Irrati libreak**

Hizlariak: "Eguzki", "Radixu" eta "Hala Bedi" irratietako kideak.

✓ Kultur Etxean

Antolatzailea: Zazpiki irratia

**22,15 ZINEA**

**"Fresa y Chocolate"**

(Ikuslearen eguna)

## 28 ASTEAZKENA

**1,00 JOLAS DRAMATIKOAK**

**'Mamu maltzurrak" TAUPADA taldearekin.**

✓ Udal liburutegian

**22,15 ZINEA**

**"Cronos" (Mexico)**

Antolatzailea: Zazpiki

## 29 OSTEGUNA

**19,00 HITIALDIA**

Gaia: Gosea eta emakumea

/Kultur Etxean

Antolatzailea: Mugen gainetik

**19,30 MORKAIKOREN URTEKO BATZAR OROKORRA**

✓ Kultur Etxean

## 1© OSTIRALA

**22,00 BERTSO JAIALDIA**

Bertsolariak: Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, German Meabebasterretxea, Joxe Agirre, Jokin Sorozabal eta Millan Telleria.

✓ Kiroldegian

Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

**21,30 AFARIA**

✓ Kimetz Elkartean

Antolatzailea: Zazpiki

**22,15 ZINEA**

**"Angie"**

## 31 LARUNBATA

**08,00 AIZKORR1RA 1RTEERA**

✓ Sigmako Zubitik

Antolatzailea: Morkaiko

**09,00 GABON ZAHAR FERIA**

al Plaza Handian

**17,00 ITXAROPENA ABESBATZAREN KONTZERTUA**

✓ Herriko Antzokian

## IGANDEA

**19,30.22,15 ZINEA**

**"Angie"**

## ASTELEHENA

**22,15 ZINEA**

**"Angie"**

## 3 ASTEARTEA

**22,15 Z1NEA**

**"La Huida"**

(Ikuslearen eguna)

## 741 ASTEAZKENA

**19,30 BIDEO EMANALDIA**

**"La marcha"**

✓ Kultur Etxean

Antolatzailea: Mugen gainetik

## OSTEGUNA

**18,00 ERREGEEN KABALGATA**

✓ Plaza Handian

# txandak

## FARMAZIAK:

**24, larunbata: Yudego**
**25, igandea:** Yudego
**26, astelehena:** Bidasolo
**27, asteartea:** Bidasolo
**28, asteazkena:** Efixeberria
**29, osteguna:** Etxeberria
**30, ostirala:** Etxeberria
**31, larunbata:** Etxeberria
**1, igandea:** Etxeberria
**2, astelehena:** Etxeberria
**3, asteartea: Yudego**
**4, asteazkena:** Yudego
**5, osteguna:** Yudego

# IYe Kodrilen Arteko §:bin flapelket:

## Abenduaren lotik 3lra bitartean




**IZEN EMATEA: Udal Kirol Zerbitzuan.**

**(Azken eguna abenduaren 22a.)**




**ANTOLATZAILEA:**
**ELGOIBARKO UDALA**
**KIROL ZERBITZUA**

**LAGUNTZAILEAK:**
**RADIO ESTUDIO**
**TXANKAKUA**

**KOLABORATZAILEA:**
**ONGARRI**

*Eigaibarko Udalak Jai Zoriontsuak opa dizkizue herritar guztioi*

*Urte zaharra*
*ondo bukatu*
*eta Berria*
*hobeto hasi*



**ELGOIBARKO UDALA**